



EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUA



Kontratazio Publiko Sozialki Arduratsuaren gida

Santiago Lesmes Zabalegi
Leire Álvarez de Eulate Bada



Laguntzailea:





**EROSKETA
PUBLIKO
ARDURATSUA**



Kontratazio Publiko Sozialki Arduratsuaren gida

Santiago Lesmes Zabalegi
Leire Álvarez de Eulate Bada

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Red de Economía Alternativa y Solidaria

Venezuela Plaza 1, 2. Ezk.-Ezk. • 48001 Bilbo

Tel.: 944 160 566 • Faxe: 944 156 319

reaseuskadi@reaseuskadi.net

www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

Lege Zenbakia: BI-952-2014

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

Merkatu sozialen egituraketa eta kontsumo arduratsuaren sustapena EAEn proiektuaren esparruan Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzaturako argitalpena.



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka.

Obra hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu>



Aurkibidea

1. Aurkezpena	5
2. Sarrera: kontzeptuak eta oinarriak	7
3. Klausula sozialen ezarpena kontratu publikoen lizitazioan	11
3.1. Kontratuak prestatzeko fasea	11
3.1.1. Kontratuaren helburua	11
3.1.2. Kontratatzeko debekua	16
3.1.3. Kaudimen tekniko soziala	19
3.1.4. Kontratu erreserbatuak	25
3.2. Esleipen-fasea	35
3.2.1. Esleipen-irizpideak	35
3.2.2. Lehentasunezko irizpideak	46
3.3. Betearazpen-fasea. Betearazpenerako baldintzak	48
4. Jarraibideak eta erabaki orokorrak	57



1. Aurkezpena

Dagoeneko ez dago aitzakiarik. Kontratazio Publikorako 2014/24/EU Zuzentarau berriak, Europako Parlamentuak eta Batzordeak onartuta, honakoa adierazten du kontuan hartuzko 2. puntuan: “kontratazio publikoak funtsezko zeregina du 2020ko Europa Estrategian; merkatuan oinarritutako tresnetako bat da, hazkundera zentzuduna, iraunkorra eta barneratzailea lortzeko erabili beharrekoa, aldi berean, funts publikoen erabilera eraginkorragoa bermatuta, kontratazio publikoan enpresa txiki eta ertainek parte har dezaten lagunduta, eta kontratatzaileek helburu sozial komunak bultzatzeko asmoz kontratazio publikoa hobeto erabil dezaten ahalbidetuta”.

Sektore batzuetan oraindik ere zalantzarik balego, zuzendaritza berriak gizarte klausulen legezketasunari buruzko digresioak behin betiko ebazten ditu; edozein oposizio tekniko nahiz juridikok ez dauka zentzurik dagoeneko, eta ezinbestekoa da gure administrazio publikoek euren kontratuak tresna eraginkor gisa erabiltzea, gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko, kalitatezko enplegua sortzeko, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasun eraginkorra bultzatzeko, eta ingurumena zaintzeko, beti, baina, bereziki, gaur egun bizi dugun krisi ekonomiko eta sozial honen aurrean.

Kontratazio publikoa ez da berezko helburua, eta ez da prestazioak, obrak eta zerbitzuak administrazioarentzat onuragarrienak diren baldintza ekonomikoetan eskuratzeko bitartekoa soilik, baizik eta helburuak eta oinarritzko balioak, hau da, gizartearen kohesioa, aberastasuna banatzea, berdintasuna eta justizia betetzeko asmoz botere politikoen zerbitzura dagoen tresna juridikoa, batez ere.

Europak garbi adierazi du. Orain, Estatuko, autonomia erkidegoetako eta tokiko administrazio publikoen txanda da, zuzentarau berriaren edukiak aplikatzeko eta kontratazio publikoa benetako tresna politiko bihurtzeko, bere balizko boterea gizarte eta ingurumen esparruetan garatu dezan.



2. Sarrera: kontzeptuak eta oinarriak

Zer da Erosketa edo Kontratazio Publiko Sozialki Arduratsua?

2011. urtean, Kontratazio Publiko Sozialki Arduratsuak (KPSA) zer diren azaldu zuen Europako Batzordeak: *“faktore sozial bat edo gehiago kontuan hartzen dituzten kontratazio-eragiketak: lan-aukerak, lan duina, gizarte eta lan arloko eskubideen betearazpena, gizarteratzeko prozesua (elbarriak barne), aukeraberdintasuna, guztientzako erabilerraztasunaren diseinua, iraunkortasunaren irizpideen ezarpena, merkataritza etikoa, enpresen gizarte-erantzukizunaren (EGE) borondatezko betearazpen zabalagoa eta, aldi berean, Europar Batasuneko Itunnean (EBI) eta kontratazioari buruzko zuzentarauetan zehaztutako printzipioen errespetua”*.¹

Zein dira KPSAren onurak eta motibazioak?

KPSAren ustezko abantailen artean, Europako Batzordeak berak honako hauexek nabarmentzen ditu (goian aipatutako argitalpenean):

- *Gizarte eta lan arloko legeak betetzen laguntzea, horrekin lotutako nazio-mailako eta nazioarteko politiketako programak eta konpromisoak kontuan hartuta.*
- *Kontzientzia soziala duten merkatuak suspertzea.*
- *Faktore sozialak kontuan hartzen dituzten gobernantza-trebetasunak erakustea.*
- *Integrazioa sustatzea.*
- *Gastu publiko eraginkorragoak bermatzea.*

Legezkoak ote dira klausula sozialak? Zer adierazten da KPSAri buruzko legerian?

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan adierazten denez, legearen arabera bada-go kontratazioetako orrietan irizpide sozialak kontuan hartzerik.

Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, ekainaren 2ko 6/2008 ebazpenaren bidez indartu da bere ezarpena, eta Gobernu Kontseiluak honako honexeri buruz hartutako erabakiarekin dauka zerikusia: *“gizarte zein ingurumen arloko irizpideen*

¹ ENPLEGU ZUZENDARITZA NAGUSIA, EUROPAKO BATZORDEKO GIZARTE GAIK ETA AUKERA BERDINTASUNA (2011): *Erosketa sozialak. Kontratazio publikoetan faktore sozialak kontuan hartzeko gida.*

eta beste politika publiko batzuen ezarpena autonomia-erkidegoko administrazio- eta bertako sektore publikoko kontratazioan". Erabaki horretan, zenbait klausula sozial agertzen dira, eta zehatz-mehatz hartu behar dira kontuan Eusko Jaurlaritzako sail, enpresa publiko eta erakunde autonomo guztietako orrietan. Horrez gain, tokian tokiko administrazioentzako erreferentzia ere izango da erabakia.

Gainera, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an Kontratazio Publikoari buruz onartutako 2014/24/EB Zuzentarau berria ere argi eta behin eta berriro xedatzen da irizpide sozialak betearazpen-baldintza, esleipen-irizpide eta kontratu erreserbatu moduan ezarri ahal izango direla.

Kontratazio publikoari buruzko erreferentziako legeria

- Europar Batasuna: Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an Kontratazio Publikoari buruz onartutako 2014/24/EB Zuzentaraua.
- Estatu espainola: Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua (276. BOE, 2011ko azaroaren 16koa).
- Euskadi: Gobernu Kontseiluak honako honexeri buruz hartutako erabakiarekin lotutako ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena: gizarte zein ingurumen arloko irizpideen eta beste politika publiko batzuen ezarpena autonomia-erkidegoko administrazio- eta bertako sektore publikoko kontratazioan (116. EHAA, 2008ko ekainaren 19koa).

Horren ondorioz, gaur egungo esparru juridikoak sustraitik konpondu ditu klausula sozialei buruzko eragozpen juridikoak, eta lehendik dauden esperientzia nahiz jarduera egoki ugariak dira horren erakusgarri. Beraz, apurka-apurka aurrera egitea da gaur egungo erronka, gure administrazio publikoek euren kontratuak honako haxe sustatzeko tresna eraginkor moduan erabili ditzaten: lan-aukerak, lan duinak, gizarteratzeko prozesua, irisgarritasuna, merkataritza etikoa eta emakumeen zein gizonen berdintasuna. Hartara, obraren betearazpen, zerbitzugintza edo hornikuntzaren erosketa hutsetik haratago doan eragina lortu ahal izango da.

Praktikan, zer da KPSA eta zein dira bere helburuak?

Kontratazio publiko arduratsuaren arabera, etika, ingurumen eta gizarte arloko irizpideak zeharka ezarriko dira, kontratu publikoak prestatu eta betearazteko eta enpresa lizitatzailerak zein kontratistak hautatzeko orduan.

Argudio nagusia ageri-agerikoa da: ez da batere zentzuzkoa enpresei aurrekontu publikoak transferitzea, kutsagarriak badira, langileen eskubideak errespetatzen

ez badituzte, genero-bereizkeria ezartzen badute edo legerian bertan eskatutako elbarrien %2ko kuota betetzen ez badute.

Aitzitik, koherentziaren eta eraginkortasunaren adierazgarri da kontratuak (eta fondo publikoak) kohesio soziala eta ingurumenaren iraunkortasuna sustatzen dituzten enpresa arduratsuen alde erabiltzea. Beraz, euren kontratuak esleitzen dituztenean, administrazio publikoek zenbait neurri hartu beharko dituzte, gizarteratzea, laneratzea, bidezko merkataritza edo kalitateko enplegua bultzatzeko.

Horrela, bada, esleipen-botereek interes publikorako erabiliko dituzte fondo publikoak, herritarren interesa hartuko dute kontuan, eraginkortasunez jokatuiko dute, zenbait ekintza publikoren arteko sinergiak ezarriko dituzte (kontratazio eta politika sozialak) eta ahalik eta etekin handiena aterako diote aurrekontuari.

KPSA ez da hondar-politika, garrantzi kuantitatibo handia baitu. Izan ere, erakunde publikoak lehenengo operadore ekonomikoa dira, kontratazio publikoa BPGd-ren %15ekoa delako. Beraz, enplegu-emaile eta kontsumitzaile handiena da administrazio publikoa.

Jakin badakigu administrazio publikoetako baliabideetan zailtasun handiak daudela eta kontratazio publikorako kontu-sailak gutxitu dituztela. Edonola ere, gaur egungo krisia suspergarri moduan erabili beharko litzateke, enpresen gizarte-erantzukizuna bultzatzeko, botere publikoak posizio koherente nahiz eredugarrietan lekurtzeko eta, azken batean, eredia bera aldatzeko. Hartara, eskaintza ekonomikoa ez da teknika, ingurumen eta gizarte arloko kalitatearen gainetik egongo.


Era berean, ez da batere zentzuzkoa era bateko edo besteko arrazoiak azaldu behar izatea, Kontratazio Publiko Sozialki Arduratsua sustatzeko. Bestela, gizar-tearen aurkakoa den kontratazio arduragabea ezartzen jarraitu nahi ote dugu?

Nola ezarri KPSA klausula tekniko eta administratiboan orrietan?

Hurrengo taulan, lizitazio publikorako prozedurako faseetan (prestaketa, esleipena eta betearazpena) ezarri beharreko irizpide sozialen eskema agertzen da: gida honetan jarraituko dugun gidoia izango da.

Aldi berean, gizarte eta ingurumen arloan batera ezarri daitezkeen zenbait gai ere agertzen dira eskuineko zutabearen. Argitalpen honen garapenean, prozedurarako aukerak eta barietate tematikoak uztartuko ditugu. Horretarako, ezarri beharreko arautegia aipatu, aurretiaz ezarritako jarduera egokiak azaldu eta klausulen adibideak eskainiko ditugu.

Azkenik, eredu integralak landuko ditugu -jarraibideak edo erabakiak-. Horien bidez, gero eta administrazio publiko gehiagok behar besteko tresna juridikoak dauzkate, euren kontratuetan klausula sozialak derrigorrean ezartzeko, lizitazio-rako prozedurako fase guztietan era guztietako gai sozialak kontuan hartuta.





3. Klausula sozialen ezarpena kontratu publikoen lizitazioan



3.1. Kontratuak prestatzeko fasea

3.1.1. Kontratuaren helburua

— Zer adierazten da legerian? —

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua

86.1. artikulua: "kontratuen helburua zehatza izan beharko da".

25.1. artikulua: "sektore publikoko kontratuetan, edonolako itunak, klausulak eta baldintzak ezarri ahal izango dira, betiere, interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren eta administrazio onaren printzipioen aurkakoak ez badira".

22.1. artikulua: "sektore publikoko erakundeek, organismoek eta entitateek euren helburu instituzionalak betetzeko eta garatzeko beharrezkoak diren kontratuak bakarrik egin ahal izango dituzte. Horretarako, zehatz-mehatz adierazi beharko dute proiektatutako kontratuaren bidez estali beharreko premiak nolakoak diren eta nolako irismena duten, eta horretarako edukia nahiz helburua egokiak izan beharko dira...".



Europako Batzordeak kontratu publikoen legeria bateratuari eta kontratu horietan faktore sozialak ezartzeko aukerei buruz argitaratutako interpretazio-komunikazioa (2001eko urriaren 15a)

1.1. Kontratuaren helburuaren azalpena

Kontratu publikoan faktore sozialak ezartzeko lehenengo aukera kasuan kasuko zuzentarauak ezarri aurretiko fasean ematen da, hau da, kontratuaren helburua aukeratzen denean edo, labur-labur esanda, honako galdera hau sortzen denean: zer eraiki edo erosi nahi dut administrazio publiko moduan? Fase honetan, esleipen-botereek aukera aparta izango dute, faktore sozialak kontuan hartzeko eta euren helburu sozialen arabera produktua edo zerbitzua hautatzeko.



Gobernu Kontseiluak honako honi buruz hartutako erabakiarekin lotutako ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena: gizarte zein ingurumen arloko irizpideen eta beste politika publiko batzuen ezarpena autonomia-erkidegoko administrazioari eta bertako sektore publikoko kontratazioan.

III.1. INGURUMENA ETA ALDAERA EKOLOGIKOAK ERRESPETATZEN DITUEN KONTRATUAREN HELBURUAREN AZALPENA

1. Kontratuaren helburua azaltzen dutenean, kontratazio-organismoek kontratatu behar dituzten produktuen eta zerbitzuen ingurumen-balioa hartu beharko dute kontuan, eta, kalitatea/prezioa erlazioaren arabera egokia bada, ingurumen-ezaugarri onak dituztenak aukeratuko dituzte; esate baterako:
 - CO2 eta partikula gutxi igortzen dituzten ibilgailuak.
 - ...

III.2. GENEROAREN IKUSPEGIAREN EZARPENA KONTRATUAREN HELBURUAREN AZALPENEAN

1. Generoaren ikuspegia kontratuaren helburuaren ezaugarri teknikoak denean, helburuaren azalpenean kontuan hartu beharko da berariaz; adibidez, «kontratu honek generoaren ikuspegia kontuan hartzen duen hiri-mugikortasunerako planaren diseinua kontratatzea izango du xede».

III.3. GIZARTE ETA LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA ERRESPETATZEN DITUEN KONTRATUAREN HELBURUAREN AZALPENA

1. Kontratuaren helburua azaltzen dutenean, kontratazio-organismoek kontratatu behar dituzten produktuen eta zerbitzuen balio soziala eta segurtasuna hartu beharko dituzte kontuan...



Kontratu publikoei buruzko arautegian, ez da gizarte eta ingurumen arloko irizpideak kontuan hartzen dituen kontratuaren helburuaren azalpena aipatzen -Eusko Jaurlaritzaren erabakian eta Europako Batzordearen komunikazioan, bai, ordea-. Izan ere, kontratuen helburua zehatza izan beharko dela baino ez du adierazten eta interes publikoaren arabera izan beharko dela. Beraz, zehaztasunez jokatzeko badu, edozein administrazio publikok gizarte edota ingurumen arloko erreferentziak dituen kontratuaren helburua azaldu ahal izango du. Gainera, agerikoa izango da bere eskumenekin bat etorriko dela eta bere xede instituzionalak sustatu beharko dituela. Hona hemen zenbait adibide:

Aretxabaletako Udala

ARETXABALETAKO ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETARAKO ZERBITZUGINTZA GARATZEKO ETA LANERATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN TALDEAK GIZARTERATZEKO IREKITAKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN ORRIA

Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua aipatzen duen Aretxabaletako Udaleko orriaren izenburua.

Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa

Gaztela eta Leongo Juntak uztailaren 26an hartutako 59/2012 ERABAKIA. Horren bidez, Gaztela eta Leongo Erkidegoko administrazioko kontratazio-organoetarako gidalerro lotesleak onartzen dira, kontratazio publikoan klausula sozialak kontuan hartzeko.

2. Kontratuaren helburuaren eta zehaztapen teknikoaren azalpena.

Kontratuaren helburua azaltzen dutenean, kontratazio-organoek, euren izaeraren arabera halakorik egiterik badute, kontratatu behar dituzten obren, produktuen eta zerbitzuen balio soziala berariaz hartu beharko dute kontuan; esate baterako, gizartean baztertuta edo bazterketa-arriskupean bizi direnen enpleguaren sustapena, elbarriak laneratzeko prozesua, enpleguko egonkortasunaren sustapena, emakumeen zein gizonen benetako berdintasunaren sustapena eta enpresetan familia zein lana uztartzeko neurrien bultzada.

Derrigorrean ezarri beharreko Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoaren erabaki orokorra.

Castellóko Udala

“ESCOLA DE MATÍ I DE VESPRADA, CURSO 2012-2013” ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUTEN KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA

3. KONTRATUAREN BIDEZ BETE BEHARREKO PREMIA ADMINISTRATIBOAK ETA KONTUAN HARTU BEHARREKO ERA GUZTIETAKO FAKTOREAK.

Kontratazio honek honako premia hauek betetzea izango du xede:

- Familiaren eta lanaren uztarketa sustatzea eta, horretarako, umeak lanaldietara egokitutako ordutegietan artatzea, ohiko eskola-ordutegiak ez beste batzuk izan beharko direla kontuan hartuta (7:30etik 9:00etara eta 17:00etatik 18:30era).
- Emakumeei eta gizonei eta, batez ere, genero-indarkeriako emakume biktimei berdintasunetzko baldintzetan laneratzen laguntzea.

Castellóko Udalaren orria, kontratuaren helburuak bete beharreko premiak zein diren azaltzeko.

Horrez gain, nabarmendu behar dugu oso garrantzitsua ere badela berariazko aipamen sozialak dituen kontratuaren helburua zein den azaltzea, askotan zerbitzu juridikoen ustez ez delako zilegizkoa esleipen-irizpide sozialak kontuan hartzea. Izan ere, kontratuaren helburuarekin egon behar dira lotuta -SPKLTBko 150. artikuluan xedatzen den bezala-. Beraz, hobe da esleipen-irizpide moduan sartu nahi dugun gai soziala kontratuaren helburuaren azalpenean bertan agertzea.

Gure ustez, lehen adierazitakoa adierazita ere, ez da beharrezkoa, zuzentarau berrian argitu egiten delako zer den kontratuaren helburuarekin lotuta egotea. Hain zuzen ere, 104. kontuan hartuzkoan dago xedatuta, betearazpenerako baldintzak aipatzen direnean: “kontratua betearazteko baldintzak zuzentarau honekin izan beharko dira bateragarriak, betiere, zuzenean edo zeharka bereizkeriazkoak ez badira eta kontratuaren helburuarekin lotuta badaude. Bertan, hain zuzen ere, ekoizpen, zerbitzugintza edo merkaturaketarako prozesu berezian parte hartzen duten faktore guztiak azalduko dira. Aurreko horretan, kontratua betearazteko prozesuari buruzko baldintzak hartzen dira kontuan, baina enpresako politika orokorrari buruzko betekizunak uzten dira alde batera”. Hau da, kontratuaren helburuarekin lotuta egongo da, betiere, honako honexeri buruz ari bagara: kontratuko prestazioa bera, kontratuaren ezaugarriak, kontratua betearazteko modua, esleipen-irizpideak, kontratua betearazten duten langileekin zerikusia duten betearazpen-baldintzak edo kontratua gauzatzeko edo betearazteko modua.

Horrelaxe ikusiko dugu hurrengo orrian. Bertan ikusten dugunez, esleipen-irizpide sozialek haztapen handia eta eduki nabaria dituzte gizartean baztertuta daudenentzako enplegua sortzeko orduan:

TXERTATZE ETA TOKIKO GARAPENEO
PROIEKTUA KUDEATZEKO
ADMINISTRAZIO KONTRATAZIO
BEREZIA ARAUPETUKO DUTEN
BALDINTZA ADMINISTRATIBOEI
BURUZKO PLEGUA, LAN-MERKATUAN
SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN
PERTSONEK OSTALARITZA-
PRESTAKUNTZAN ETA UMEENTZAKO
GUNEAN LAN EGITEKO, GETXO
KIROLAK-FADURA LOKALETAN
ZERBITZU HORIEK USTIATZEKO

PLIEGOS DE CLÁUSULAS
ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA
LA CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA
ESPECIAL, POR PROCEDIMIENTO
NEGOCIADO SIN PUBLICIDAD, PARA
GESTIONAR EL PROYECTO DE INSERCIÓN
Y DESARROLLO LOCAL PARA EL EMPLEO
DE PERSONAS CON DIFICULTADES DE
ACCESO AL MERCADO DE TRABAJO
EN HOSTELERIA-FORMACIÓN Y ZONA
DE NIÑO/AS EN LOS LOCALES DE
GETXO KIROLAK-FADURA PARA LA
EXPLOTACIÓN DE ESTOS SERVICIOS

D) LANEAN TXERTATZEKO ZAILTASUNAK
DITUZTEN PERTSONAK KONTRATATZEA
%30

- 14 pertsonen kontratazioa hiru urte igaro baino lehen, eta, 10 gutxienez lan esparruan laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak izango dira: 15 puntu.
- 14 pertsonen kontratazioa sei urte igaro baino lehen, eta 20 gutxienez lan esparruan laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak izango dira: 15 puntu.

D) CONTRATACIÓN DE PERSONAS CON
DIFICULTADES DE ACCESO AL EMPLEO
30%

- Contratación antes de los tres primeros años de al menos 14 personas, de los cuales 10 son personas de inserción laboral: 15 puntos.
- Contratación antes de los seis primeros años de al menos 24 personas, de los cuales 20 son personas de inserción laboral: 15 puntos.

Zenbait adibide

Objeto del contrato

- Gizartean baztertuta edo bazterketa-arriskupean daudenak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuaren bidez Kultura Etxeko obren betearazpenerako kontratua esleitzeko orria.
- Generoaren ikuspegia kontuan hartzen duen etxez etxeko atentzio-zerbitzuaren esleipena arautuko duten klausula administratibo partikularren orria.
- Ingurumen-irizpideak kontuan hartzen dituen paper-hornikuntza arautzeko klausula administratiboaren orria.
- Hurbileko zirkuituen bidez produktu fresko eta ekologikoak eskaintzen dituen eskola-jantokirako zerbitzua esleitzeko zehaztapen teknikoaren orria.
- Gizarte eta lan arloko kalitate-irizpideen bitartez etxerik gabekoen aterpetxearen kudeaketa kontratatzekeo klausula administratiboaren orria.

3.1.2. Kontratatzeko debekua

— Zer adierazten da legerian? —

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua

60. artikulua. *Kontratatzeko debekuak.*

1. Honako inguruabar hauetako baten eraginpean daudenek ezin izango dute sektore publikoarekin kontratatu:
 - c) Honako honexengatik zehapen irmoa jaso izana: merkatu-diziplinaren, lanbidearen, laneratzeko prozesuaren eta elbarrientzako aukera-berdintasunaren eta ez-bereizkeriaren arloko arau-hauste larria edo gizarte-arloko oso arau-hauste larria, laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-hausteak kontuan hartuta, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutako Ordena Sozialeko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legeko Testu Bateratuan xedatutakoaren arabera; eta, era berean, bertako 22.2. artikuluan aurreikusitako arau-hauste larria edo ingurumenaren arloko oso arau-hauste larria, honako hauexetan xedatutakoaren arabera: Proiektuetako Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea; Eremu Naturalak eta Flora zein Fauna Basatiak Babesteko martxoaren 27ko 4/1989 Legea; Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea; Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea; uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Urei buruzko Legeko Testu Bateratua; eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea.



Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an Kontratazio Publikoari buruz onartutako 2014/24/EB Zuzentaraua

57. artikulua. Kanpoan uzteko arrazoiak.

4. Euren kabuz erabakita edo estatu kideek eskatuta, honako edozein egoeratan esleipen-botereek kontratazio-prozeduratik kanpo utzi ahal izango dute operadore ekonomikoa:

a) Edozein sistema egokiren bitartez esleipen-botereak 18. artikuluko 2. paragrafoaren arabera ezarri beharreko betebeharrak bete ez direla egiaztatu ahal duenean.

18. artikulua. Kontratazioaren printzipioak.

2. Estatu kideek behar besteko neurriak hartu beharko dituzte, kontratu publikoen betearazpenean operadore ekonomikoek ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko, honako hauexetan xedatutakoaren arabera: Europar Batasuneko Zuzenbidea, Zuzenbide Nazionala, hitzarmen kolektiboak edo X. eranskinean aipatutako ingurumen, gizarte eta lan arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenak.

101. kontuan hartuzkoa: "horrez gain, esleipen-botereek operadore ekonomikoak kanpoan uzteko aukera izan beharko dute, fidagarriak ez direla erakutsi dutenean; esate baterako, ingurumen edo gizarte arloko betebeharrak eta, euren artean, elbarrientzako irisgarritasunari buruzko arauak bete ez dituztelako...".



SPKLTBko 60.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, gizarte, lan edo ingurumen arloko arauak urratzen dituzten enpresek debekatuta izango dute administrazio publikoekin kontratatzea. Praktikan, ordea, honako hiru gai zehatz hauek izango dira interesgarriak:

- **Elbarrien ez-bereizkeriari** buruzko erreferentzia: abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauexek izango dira arau-hauste larriak: “3. *Elbarriak laneratzeko prozesuaren arloan, elbarrientzako lanpostuak erreserbatzeko legezko betebeharra ez betetzea edo ezohiko neurri alternatiboak ez ezartzea*”. Hau da, ez da **Elbarrien Integrazio Sozialari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko** 38.1. artikuluan xedatutakoa betetzen: “50 langileri edo gehiagori lana ematen dietenean, enpresa publiko eta pribatuetako langileen %2, gutxienez, elbarriak izan beharko dira”.
- Bigarren gaia **emakumeen eta gizonen berdintasuna** izango da, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako **martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko** hamalagarren xedapen gehigarriaren bidez 5/2000 Legegintzako

Errege Dekretua aldatu zelako (SPKLTBko 6o.1.c. artikulua) berariazko aipamena). Horren ondorioz, honako suposamendu hauek erantsi ziren:

- ✓ Langileen Estatutuan edo legearen arabera ezarri beharreko hitzarmenean zehaztutako berdintasun-planen inguruko betebeharrak ez betetzea.
 - ✓ Enpresaren erabakiak edo hitzarmenak -zuzenak edo zeharkakoak- sexu-arrazoiengatik bereizkeriazkoak izatea ordainsarien, lanaldiaren, prestakuntzaren edo igueren esparruan.
 - ✓ Lanean jazarpen sexuala edo sexuagatikoa jasatea, egoera hori ekiditeko beharrezkoak ziren neurriak ez hartzeagatik ere bai.
 - ✓ Betebehar hori egonez gero, Berdintasun Plana ez egitea, ez betetzea edo ez ezartzea.
- Azkenik, ingurumenaren arloko debekuak azaltzen dira legean, eta honako hauexei buruzko legeak aipatzen dira bertan: Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluazioa, Kostaldeak, Eremu Naturalen eta Flora eta Fauna Basatien Babesa, Ontziak, Urak edo Kutsaduraren Prebentzioa eta Kontrola.

Ezartzeko orduan badago arazorik, ez delako nahikoa izango %2ko erreserba ez betetzea, Hondakinei buruzko Legea ez errespetatzea edo Berdintasun Plana ez ezartzea. Izan ere, **zehapen irmoa** (errekurritu gabea) **sorrarazi duen oso arau-hauste larria izan beharko da**. Horrez gain, **kontratazio-organoak ez du inolako eskumenik izango, kontratatze debekua ofizioz ezarri ahal izateko** (SPKLTBko 61.1. artikulua). Beraz, argi eta garbi esan beharra dago zehapen irmoaren ondorioz kontratatze debekua sortuko dela (SPKLTBko 61.3. artikulua). Gainera, geroago ere, **kontratatze debeku horren eraginkortasuna** Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko **inskripzioaren baldintzapean egongo da** (SPKLTBko 61.4. artikulua).

Beraz, gizarte eta ingurumen arloko arautegia betetzen ez denean kontratatze debekua ez da eraginkorra: ez da zuzenean ezartzen, eta kontratazio-organoak ez du inolako eskumenik, aurrean aitaturako suposamenduen eraginpean dauden enpresak lizitaziotik kanpo uzteko.

Nolanahi ere, elbarritasunaren arlo eksklusiboan badago antzeko eraginik sortzerik, kontratazio-erregimena SPKLTBko 4.1. xedapen gehigarria ezarri gero. Gainera, berritasuna izango da 1997ko Legearen aldean. Hain zuzen ere, administrazio publikoei ahalmena ematea izango da legegintzaren asmoa, EISLen (Elbarrien Integrazio Sozialari buruzko Legea) eskatutako kuota benetan betetzen dela eskatu dezaten eta hori egiaztatzen ez dutenak lizitaziotik kanpo uzteko aukera eduki dezaten.

4. Euren langile-taldean langile elbarriak derrigorrean eduki behar dituzten enpresei buruzko adierazpena.

Orri honetako VI. eranskineko ereduaren arabera adierazpen arduratsua. Horren bidez, esleipenduna izanez gero, "Euren langile-taldean langile elbarriak derrigorrean eduki behar dituzten enpresekin kontratatzeke neurriak" orri honetako 27. klausulan xedatutakoaren arabera, onartu egingo du enpresako langile-taldeko langileen %2, gutxienez, elbarriak izateko betebeharra beteko duela kontratua indarrean dagoen bitartean, betiere, 50 langile edo gehiago baditu eta kontratistak betebehara hori bete behar badu, Elbarrien Integrazio Sozialari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 38.1. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta. Halaber, onartu ere egingo du apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuaren bidez arauz garatutako neurri alternatiboak ezartzeko betebeharra beteko duela. Horrez gain, adierazpen horretan bertan ere azaldu beharko du lehen aipatutako betebeharra betearazten duela eta kontratazio-organoaren aurrean egiaztatzeke betebeharra onartzen duela, kontratuak dirauen bitartean edo, hala badagokio, behin betiko bermea itzuli baino lehen eskatzen zaionean.

Madrilgo Erkidegoko orri honetan, 4.1. xedapen gehigarriaren ezarpena azaltzen da.

3.1.3. Kaudimen tekniko soziala

— Zer adierazten da legerian? —

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua

62. artikulua. Kaudimenaren eskakizuna.

1. Sektore publikoarekin kontratuak egiteko, enpresariak egiaztatu egin beharko dute kontratazio-organoak zehaztutako kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional edo teknikorako gutxieneko baldintzak dituztela. Eskakizun horren orde, sailkapenaren eskakizuna ezarriko da, lege horretan xedatutakoaren arabera eskatu beharra dagoenean.
2. Lizitazioari buruzko iragarkian bertan adieraziko da zein diren enpresariak bete beharreko gutxieneko kaudimen-eskakizunak eta zer egiaztagiri aurkeztu beharko dituzten. Horrez gain, kontratuaren orrian bertan ere zehaztuko dira, helburuarekin lotuta egon beharko dira eta proportzionalak izan beharko dira.



Europako Batzordeak 2001eko urriaren 15ean kontratu publikoen legeria bateratuari eta kontratu horietan faktore sozialak ezartzeko aukerei buruz argitaratutako amaierako COM (2001) 566 Interpretazio Komunikazioa

1.3.2. "Faktore sozialen ezarpena, izangaien edo lizitatzailen gaitasun teknikoaren egiaztatzea":

Kontratuaren arabera gizarte-arloko gaitasun berezirik eduki behar bada, zilegizkoa izango da esperientzia zehatza gaitasun eta jakintza teknikoaren irizpide moduan eskatzea, izangaien kaudimena nolakoa den egiaztatu ahal izateko. Kontratu publikoari buruzko zuzentarauen bidez eskatu daitezkeen probek enpresaren «kaudimen soziala» kontuan hartzeko aukera baino ez dute eskaintzen, aurrean adierazitakoaren arabera, betiere, enpresak kontratu zehatza betearazteko daukan gaitasun teknikoaren adierazgarri bada.



Gobernu Kontseiluak honako honexeri buruz hartutako erabakiarekin lotutako ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena: gizarte zein ingurumen arloko irizpideen eta beste politika publiko batzuen ezarpena autonomia-erkidegoko administrazio eta bertako sektore publikoko kontratazioan

VI. ENPRESA KONTRATISTAREN HAUTAKETA ETA GAITASUN ZEIN KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALAREN ESKAKIZUNAK

VI.4. ESPERIENTZIA, JAKINTZA ETA BALIABIDE TEKNIKOAK

1. Kontratuaren helburuaren arabera gizarte nahiz emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko edo beste politika publiko batzuen arloko gaitasun berezirik eduki behar bada, klausula administratibo partikularren orriko karatulan kaudimen tekniko edo profesionalaren eskakizun moduan eskatuko da arlo horietako betearazpenerako esperientzia zehatza, jakintzak eta baliabide teknikoak edukitzeko, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legeko 17.-19. artikuluetan xedatutakoaren arabera.
2. Kontratuak betearazteko orduan ingurumenaren arloko trebetasun tekniko berezia eduki behar denean (honako honexetarako kontratuetan, esaterako: hondakinen kudeaketa, proiektuaren idazketa, ingurumen-errendimendu handiko obraren eraikuntza edo, ingurumenaren ikuspegitik sentiberak diren gunetako eraispin-obrak) eta, oro har, edozein kontratuko zehaztapen teknikoaren orriko ingurumenaren arloko trebetasun tekniko zehatzen bat eduki behar dela adierazten denean, klausula administratibo partikularren orriko karatulan kaudimen tekniko edo profesionalaren eskakizun moduan eskatuko da betearazpenerako beharrezkoak diren esperientzia zehatza, jakintzak eta baliabide teknikoak edukitzeko. Horrez gain, horretarako beharrezkoak diren ekipo materialak ere eduki beharko dira, eta, besteak beste, honako hauxe izango dute helburu: hondakinen sorrera gutxitzea, produktu kutsagarriak ez isurtzea eta habitat naturaletarako sarbideak murriztea. Hori guztiori Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legeko 17.-19. artikuluetan xedatutakoaren arabera ezarriko da.



Ondoren, aztertu egingo dugu erakunde edo enpresa lizitatuak gizarte edo ingurumen arloan dauzkan esperientzia, prestakuntza eta ibilbidea kaudimen teknikoaren irizpideak izan daitezkeen, lizitazio publikora aurkezten diren enpresen onarpena edo gaitzespena erabakitzeko orduan.

Bilboko Udala

Kontratazio zuzendaritza / Dirección de contratación

Kontratu honen helburua izango da Bilbao Mujeres Tailerretako Programa diseinatu, programatu, prestatu, betearazi, koordinatu eta ebaluatzeko zerbitzugintza ematea.

- KAUDIMEN TEKNIKOA EDOTA PROFESIONALA

- Gutxieneko kaudimen-eskakizunak:

1. Kontratuaren helburuaren antzeko lanak edo zerbitzuak egiteko esperientzia.
2. Kontratuaren betearaziko duen giza taldeak honako osaketa eta esperientzia hauek izan beharko ditu:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gutxienez 180 orduko prestakuntza duen koordinatzailea (ikastaroak, masterrak...). Horrez gain, gutxienez hiru urtekoa den esperientzia egiaztatua izan beharko du antzeko programak edo zerbitzuak koordinatzeko zereginetan.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko kaudimena eskatzen duen Bilboko Udaleko orria.

1. Kaudimen teknikoaren beharrezko betekizuna izango da, lizitazioan onartua izateko. Horretarako, enpresa lizitatuak prozeduran onartuak izateko eduki beharrezko gaitasun tekniko eta ekonomikoaren parametroak ezarri dira, eta, teoriarik, kontratuaren prestazioa behar bezala betearaziko dela bermatuko da horrela.

2. Kaudimen teknikoaren 500.000 eurotik beherako obra-kontratuetan baino ez da ezartzen, baina 200.000 eurotik beherako zerbitzu-kontratuetan ere (SPKLTBko 65.1. artikulua²), “eskakizun horren ordez sailkapenaren eskakizuna ezarriko delako, eskatu beharra dagoenean” (SPKLTBko 62.1. artikulua). Dena dela, badago salbuespenik: ez da sailkapenik eskatzen, baina zenbateko horien gaineratik badago kaudimena eskatzerik, SPKLTBko II. eranskineko hurrengo kategorietako zerbitzu-kontratuak direnean: 6 (zerbitzu finantzarioak, aseguruak, bankukoak eta inbertsiokoak), 8 (ikerketak)

² Atalase horiek handitu egin dira Sektore Publikoan Faktura Elektronikoa Sustatzeko eta Fakturen Kontabilitate Erregistroa Sortzeko abenduaren 27ko 25/2003 Legeko amaierako hirugarren xedapenaren bidez (abenduaren 28ko «BOE»).

eta garapen zerbitzuak), 21 (zerbitzu juridikoak), 26 (aisialdi, kultura eta kirol zerbitzuak) eta 27 (beste zerbitzu batzuk).

Avilésko Udala

6.1. Kaudimen tekniko eta profesionala edo, hala badagokio, sailkapena.

Kontratuaren helburua eta edukia kontuan hartuta, legearen arabera eraturako merkataritza-sozietateek edo sozietate kooperatiboek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, arloko organismo autonomiko eskudunek behar bezala sailkatu ondoren kontratuaren helburu den jarduera ekonomikoa garatzen dutenean eta enpresa lizitatzailerak edo erakunde sustatzaileak edo sustatzaileek gizartean baztertuta edo bazterketa-arriskupean daudenekin lan egiteko kaudimen tekniko eta profesional berezia dutela egiaztatzen dutenean. Horretarako, honako hauxe aurkeztu ahal izango dute:

- Azken hiru urteetan kontratuaren helburuaren antzera egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbatekoa, data eta hartzailea adierazita. Gutxieneko baldintza: berriazko adierazpen arduratsuaren bidez egiaztatuko den epealdiko zerbitzua edo lana.
- Enpresan integratuta edo integratu gabe dauden kontuan hartu gabe, kontratuaren betearazpenean parte hartuko duten langile teknikoak edo unitate teknikoak. Horretarako, gizarteratzeko prozesuarekin lotutako titulazioa eta lan-esperientzia egiaztatu beharko dira, eta, gutxienez, sei hilekoak izan beharko dira.

Sailkapenari dagokionez, kontratu honen prezioa 120.000 eurotik gorakoa bada ere, nabarmendu beharra dago bere helburuan bertan prestazio eta zerbitzu konplexu eta konposatuak hartzen direla kontuan; esate baterako, gizartean baztertuta edo bazterketa-arriskupean daudenak berdeguneen artapenaren eta zainketaren bidez laneratzea eta gizarteratzea. Hain zuzen ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legean zehaztutako "Beste zerbitzu batzuk" II. eranskineko 27. kategorian daude kokatuta, eta, bertan, ez da 54.1. artikulua araberako sailkapenik egin beharko.

Kontratu II. eranskineko 27. kategorian sailkatzean zehaztutako zenbatekoa gainditu arren kaudimen tekniko soziala eskatzen duen Avilésko Udaleko orria.

3. Kontratuaren helburuan eta edukian gizarte edo ingurumen arloko irizpideak kontuan hartzen badira eta kontratuaren betearazpen egokiari begira erabakigarriak badira, arlo zehatzeko prestakuntza, esperientzia edo gaikuntza egiaztatzeko eskatu ahal izango da. Horrelaxe adierazten da Eusko Jaurlaritzaren erabakian (VI.4) edo Europako Batzordeak 2001eko urriaren 15ean egindako komunikazioan. Biak, gainera, gorago ere aiatu ditugu.

HONDARRIBIKO UDALA Ref. A.R./M.U.
2009CON00005

"KASINOZAHARRA"ERABERRITU,TABERNA
LEGEZTATU ETA SARBIDEA HOBETZEKO
OBRAK ESLEITZEKO PROZEDURA IREKIKO
LEHIAKETA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA
EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN
PLEGUA.

PLIEGO DE CONDICIONES ECONÓMICO-
ADMINISTRATIVAS QUE HABRÁ DE REGIR EN
EL CONCURSO MEDIANTE PROCEDIMIENTO
ABIERTO PARA ADJUDICAR LAS OBRAS
DE REFORMA, LEGALIZACIÓN DE BAR
Y MEJORA DE ACCESOS AL HOGAR DEL
JUBILADO "KASINO ZAHARRA".

"A" gutun-azalaren azpitulua
"KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA
KAUDIMENA" izango da, eta honako
agiri hauek aurkeztu beharko dira:

e) Lan-merkatuan egoera txarragoan
dauden bizilagunak eta taldeak
gizarteratzeko eta laneratzeko gaitasun
teknikoa. Hori egiaztatzeko, Laneratzeko
eta Gizarteratzeko Enpresen Erregistro
Ofizialean egin beharko da inskripzioa.

Gizarteratzeko eta laneratzeko kaudimen teknika eskatzen duen Hondarribiako Udaleko orria.

4. Nolanahi ere, euren ezaugarriak eta edukia edonolakoak direla ere, kontratu guztietan ezin liteke gizarte edo ingurumen arloko kaudimen teknika eskatu, berdintasunaren, ez-bereizkeriaren eta konkurrentzia askearen oinarriko printzipioak urratuko lirakeelako.
5. Kaudimen teknika egiaztatzeko sistemari dagokionez, SPKLTBko 76.-79. artikuluetan zehazten dira zenbait frogabide: azken hiru urteetan egindako lanak; langile teknikoak; instalazio teknikoen azalpena; titulazio akademikoak; kalitatea kontrolatzen duten institutu edo zerbitzu ofizialek egindako ziurtagiriak; enpresako urteko batez besteko langile-kopuruari buruzko adierazpena... Aldi berean, honako hauxe ere xedatzen da SPKLTBko 62. artikuluan: *"kontratazio-organoak zehaztuko ditu"* eta *"lizitazioari buruzko iragarkian adieraziko dira, kontratuaren orrian bertan zehaztuko dira, helburuarekin lotuta egon beharko dira eta proportzionalak izan beharko dira"*.

DECRET D'ALCALDIA
CONTRACTACIÓ PÚBLICA RESPONSABLE AMB CRITERIS SOCIALS I AMBIENTALS

En els contractes que tinguin per objecte la prestació o gestió de serveis de caràcter social o assistencial, i quan no sigui exigible la classificació del contractista, l'òrgan de contractació podrà incloure al plec de clàusulas administratives requisits de solvència tècnica específics, com els que s'esmenten a continuació:

- a) Experiència en la prestació de serveis o en la gestió de centres dedicats a persones en situació d'exclusió social.
- b) Experiència en la titularitat de serveis gratuïts o de baix preu per als usuaris,
- c) Experiència en la millora dels serveis,
- d) Experiència en la participació significativa i acreditada de voluntariat social en aquesta gestió
- e) Experiència en l'agregació de valor dels serveis socials prestats o centres gestionats a través de la seva connexió amb altres prestacions, amb treballs en xarxa amb altres entitats o una altra experiència relativa a la prestació de serveis anàlegs des de la proximitat i la participació.

Bartzelonako Udalak Kontratazio Publiko Arduratsuari buruz emandako Dekretuaren arabera, kaudimen tekniko sozialaren irizpideak ezarri ahal izango dira gizarte eta asistentzia arloko kontratuetan.

6. SPKLTBko 76.d) eta 78.f) artikuluetan, **ingurumenaren arloko kaudimen teknikoaren eskakizuna** zehaztu da berariaz, obrako eta zerbitzuetako kontratuetarako: *“kasu egokietan, kontratua betearaztean enpresariak ingurumenaren kudeaketarako ezarri ahal izango dituen neurriak”*.

Ingurumenaren arloko ziurtagirien eskabidea SPKLTBko 81. artikuluan arautzen da (ingurumena kudeatzeko arauen betearazpenaren egiaztapena): *“arauketa harmonizatupeko kontratuetan, kontratazio-organoek organismo independenteek egindako ziurtagiriak aurkezteko eskatu ahal izango dute, enpresariak ingurumenaren kudeaketari buruzko arau zehatzak betetzen dituela egiaztatzeko. Horretarako, honako hauexek kontuan hartu ahal izango dira: ingurumenaren arloko kudeaketa eta auditoriarako sistema bateratua (EMAS) edo arlo horretako Europako edo nazioarteko arauetan oinarritutako eta organismoek legeria bateratuaren arabera ziurtatutako ingurumen-kudeaketarako arauak edo Europako edo nazioarteko ziurtagiri-arauak”*.

Beraz, gizarte eta ingurumen arloko kaudimen teknikoa gizarte, asistentzia edo ingurumen arloko kontratu berezietan ezarri ahal izango dugu, betiere, gaikuntza

edo esperientzia hori kontratuaren betearazpen egokiari begira funtsezkoa bada eta kontratuaren izaeraren, helburuaren zein edukiaren arabera proportzionatuta eta justifikatuta badago.

Zenbait adibide

GIZARTE EDO INGURUMEN ARLOKO KAUDIMEN TEKNIKOA

- Azken hiru urteetan gizarte edo asistentzia arloko antzeko zerbitzugintzan garatutako esperientzia. Fakturazioa zenbatekoa izan zen adierazi beharko da.
- Gizarte-arlo berezian (gizarterapena, bazterketa, generoa, elbarritasuna...) zerbitzua emango duen giza taldearen prestakuntza berezia. Zenbat prestakuntza-ordu izan diren adierazi eta curriculuma aurkeztu beharko da.
- Honako hauxe baduela egiaztatzea: EMAS ziurtagiria edo baliokidea edo arlo horretako Europako edo nazioarteko arauetan oinarritutako eta organismoek Europako edo nazioarteko ziurtapen-arauen arabera ziurtatutako ingurumen-kudeaketarako sistemak.
- 44/2007 Legearen arabera (Euskadiko 182/2007 Dekretua, azaroaren 11koa) lane-ratzeko eta gizarteratzeko enpresa moduan sailkatuta eta erregistratuta egotea edo abenduaren 4ko 2273/1985 Dekretuaren arabera enplegurako zentro berezi moduan sailkatuta eta erregistratuta egotea.

3.1.4. Kontratu erreserbatuak

— Zer adierazten da legerian? —

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua

Bosgarren xedapen gehigarria. Kontratu erreserbatuak.

Enplegurako zentro bereziei kontratuak esleitzeko prozeduretako partaidetza edo enplegu babestuko programen esparruko betearazpena erreserbatu ahal izango da, eraginpeko langileen %70, gutxienez, elbarriak direnean eta, euren elbarritasunen izaeragatik edo larritasunagatik, lanbide-jarduera baldintza arruntetan garatzerik ez dutenean. Lizitazioari buruzko iragarkian, xedapen hau aipatu beharko da.



2014ko urtarrilaren 15eko bileran Kontratazio Publikoari buruz onartutako Zuzentarau Bateratua (behin-behineko 2014/25/EE Zuzentaraua)

20. artikulua. Kontratu erreserbatuak

Estatu kideek kontrataziorako prozeduretan parte hartzeko eskubidea erreserbatu ahal izango diete tailer babestuei nahiz operadore ekonomikoei, euren helburu nagusia elbarriak edo egoera txarragoan daudenak gizarteratzea eta laneratzea denean. Bestela, kontratuen betearazpena ere aurreikusi ahal izango da enplegu babestuko programen testuinguruan, tailer, operadore ekonomiko edo programetako langileen %30, gutxienez, elbarriak direnean edo egoera txarragoan daudenean.

77. artikulua. Zenbait zerbitzutarako erreserbatutako kontratuak

1. Estatu kideek xedatu egin ahal izango dute esleipen-botereek behar besteko ahalmena edukiko dutela, zenbait erakunderi kontratu publikoen esleipenerako prozeduretan parte hartzeko eskubidea erreserbatu ahal izateko, betiere, 74. artikuluan adierazitako gizarte, kultura eta osasun arloko zerbitzuak garatzen badira eta CPV 75121000-0, 75122000-7, 75123000-4, 79622000-0, 79624000-4, 79625000-1, 80110000-8, 80300000-7, 80420000-4, 80430000-7, 80511000-9, 80520000-5, 80590000-6, 85000000-9tik 85323000-9ra, 92500000-6, 92600000-7, 98133000-4 eta 98133110-8 kodeak badituzte.
2. 1. paragrafoan aipatzen diren erakundeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) 1. paragrafoan zehaztutako zerbitzugintzarekin lotutako zerbitzu publikoa garatzea izango dute xede.
 - b) Mozkinak berriro inbertitu beharko dituzte, erakundearen helburua lortu ahal izateko. Mozkinak banatu edo birbanatuz gero, banaketa edo birbanaketa hori partaidetza-irizpideetan oinarrituta egon beharko da.
 - c) Kontratua betearaziko duen erakundeko zuzendaritza edo jabetzako egiturak langileen jabetzan edo partaidetza-printzipioetan egongo dira oinarrituta. Bestela, bete-betean parte hartzeko eskatu beharko diete langileei, erabiltzaileei edo alderdi interesdunei.
 - d) Aurreko hiru urteetan, kasuan kasuko esleipen-botereak ezin izan dio erakundeari zerbitzu horietarako kontratua esleitu, artikulua honetan adierazitakoa kontuan hartuta.



Gobernu Kontseiluak honako honexeri buruz hartutako erabakiarekin lotutako ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena: gizarte zein ingurumen arloko irizpideen eta beste politika publiko batzuen ezarpena autonomia-erkidegoko administrazio eta bertako sektore publikoko kontratazioan

IV. ELBARRIEN ENPLEGURAKO ZENTRO BEREZIENTZAKO, GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO ENPRESENTZAKO EDO ENPLEGU BABESTUKO PROGRAMEN ESPARRUKO BETEARAZPENERAKO KONTRATUEN ERRESERBA

1. Urtero, autonomia-erkidegoko administrazio orokorreko sektore publikoko sailek, organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko entitate publikoek eta erakundeek zenbait kontratu erreserbatu beharko dizkiete gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa erregistratuei, elbarrien enplegurako zentro bereziei edo kontratu horiek enplegu babestuko programen esparruan betearazteko.

Urtero, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak erreserba horren zenbateko global eta sektoriala zehaztuko du. Horretarako, sektore horietako enpresarien elkarte adierazgarriei galdetu ostean, erreserbako talde onuradunak laneratzeko sail eskudunek Ogasun eta Herri Administrazio Sailari aurkeztuko diote erreserbako enpresa-sektore onuradunen aurreko urteko negozio-kopurua.

2. Laneratzeko eta gizarteratzeko enpresa erregistratuentzako erreserba kontratu txikien edo zenbatekoagatik negoziatutako prozeduren bidez bakarrik ezarriko da. Horretarako, ezin izango da kontratua zatikatu, kontratuei buruzko legerian zatikapenari buruz zehaztutako prebentzioak urratuko lirarteke-eta.

Enplegurako zentro berezientzako edo enplegu babestuko programen esparruko betearazpenerako erreserba edozein zenbatekotako kontratuetan ezarri ahal izango da, eraginpeko langileen %70, gutxienez, elbarriak direnean eta, euren elbarritasunen izaeragatik edo larritasunagatik, lanbide-jarduera baldintza arruntetan garatzerik ez dutenean.

...

6. Erreserbari begira adierazitako ehuneko hori ez betetzeko, legearen arabera ezinezkoa izan beharko da aipatutako kontratazio-kopuruan kontratu txikia edo zenbatekoagatik negoziatutako prozedura ezartzea edo eskatutako espedienteetan ez da eskaintza onargarririk aurkeztu beharko edo ez da inskribatuta egon beharko kontratu erreserbagarriaren helburuaren arabera eskakizunak betetzen dituzten enpresetako Kontratisten Erregistroan.



2014/24/EB Zuzentarau Bateratu berriak oso berritasun interesgarria dakar, erakunde-mota berriei (irabazi asmorik gabekoak, kooperatibak edo lan elkartuko enpresak) kontratuak erreserbatu ahal izango zaizkielako gizarte-zerbitzuen esparru eskusiboan. Dena dela, 77. artikuluan xedatzen denez, aukera hori estatu kideentzat izango da eta ez esleipen-botereentzat. Hori dela eta, aukera horren babeserako arautegia ezarri beharko da.

Erreserbatutako kontratuei esker, edozein administrazio publikok enplegurako zentro bereziei eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresei bakarrik “erreserbatu” ahal izango die lizitazioko “partaidetza”, hau da, bi tipologia horietako enpresak bakarrik aurkeztu eta onartu egin ahal izango dira. Beraz, onetsi egiten da ezaugarri bereziak dituztela, euren izaera araututa dagoela eta gizarte-onura egiaztatu bezain ezeztazina dutela.

GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO ENPRESAK

Laguntzarako eta prestakuntzarako epealdia igaro ondoren, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek enplegu normalizatua lortzeko aukera eskaintzen diete egoera sozial txarragoan edo bazterketapean bizi diren taldeei, irabazi asmorik gabeko merkataritza-egituraren garatutako lanpostuaren bidez. Horixe bera da balio erantsia. Gainera, kalitateko zerbitzuak ere eskaintzen dira beharrezko baliabide pertsonal eta teknikoaren bitartez. Era berean, euren ondasun nahiz zerbitzuen merkaturaketa sustatzen dute, merkatu publiko zein pribatuko aukerak areagotzen dituzte eta gizarterantzukizunaren irizpideak hedatzen dituzte gure gizartean.

Abenduaren 13ko 44/2007 Legearen bidez aitortutako nortasun juridiko berezia da, eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen araubidea arautzea dauka helburu (Euskadiko 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa). Bere eskakizun eta ezaugarrien artean, nabarmentzen da bertako langileen %30-%50 gizartean baztertuta edo bazterketa-arriskupean bizi diren bizilagunak izan behar direla.

Estatu espainolean, gizarteratzeko eta laneratzeko 200etik gora enpresa daude, eta laneratzeko zailtasunak dituztenentzako 2.400 lanpostu sortzen dituzte. Euretatik, 49 EAEn daude, 45 Gizateko kideak dira (Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte) eta horiek 1.046 laguni ematen diete lana³.

³ GIZATEA (2013): *Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin. 2012ko Gizarte-Txostena.*

ENPLEGURAKO ZENTRO BEREZIAK

Irabazi asmoko edo irabazi asmorik gabeko enpresak dira. Ondasunak ekoitzi edo zerbitzuak ematen dituzte, baina, horrez gain, elbarriak laneratzeari ere badute helburu. Horretarako, bertako langileek behar duten egokitzapen pertsonal eta sozialerako zerbitzuak dituzte, euren harreman soziala gehiago eta hobeto egokitu dadin.

EZBetako langileen %70ek %33ko elbarritasuna edo hortik gorakoa edukitzea behar dute, sailkapen hori lortu behar dute eta kasuan kasuko erregistroan egon behar dira inskribatuta. Bestetik, Enplegurako Zentro Bereziei buruzko Araudia onartzen duen abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuaren bitartez daude araututa.

Lan eta Immigrazio Ministerioaren esanetan, enplegurako 1.897 zentro berezi daude estatuan, eta 54.200 elbarriari ematen diete lana. Beraz, enplegua duten elbarri guztien %13k lan egiten dute bertan.

Euskadin⁴, 85 EZB daude, eta 7.529 langile dituzte. EAEn, elbarrien %32,6k lan egiten dute EZBetan. %46,2k enplegu arrunteko inguruetan lan egiten dute; %14,1ek, sektore publikoan; eta %7,1ek, euren kontura.

Kontratu erreserbatua salbuespena da konkurrentzia askearen eta tratu berdintasunaren printzipioen aldean, bai, baina salbuespen hori legezkoa da erabat, zuzentarau bateratuetan bertan dago justifikatuta eta arrazoituta, eta, praktikan, orain dela bi hamarkada hasi ziren EBko zenbait herrialdetan ezartzen.

Kontratu erreserbatua ez da esleipen-prozedura berezia, kontratu erreserbatuaren kategoria edozein lizitazio-sisteman ezarri ahal izango delako. Horretarako, bere berezitasuna lizitazioari buruzko iragarkian jakinarazi besterik ez dago, kontratua “erreserbatua” dela azaldu beharra dago eta orrian bertan adierazi beharra dago enplegurako zentro bereziek eta laneratzeko eta gizarteratzeko enpresek bakarrik parte hartu ahal izango dutela lizitazioan. Hona hemen adibidea:

⁴ EHLABE (2008): *Ekonomia soziala eta elbarriak laneratzeko eta gizarteratzeko prozesua Euskadin*.

EUSKADIKO ORKESTRA, S.A. ENPRESAKO PRENTSA-ARTXIBOAREN DIGITALIZAZIO ETA KATALOGAZIORAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ASMOZ PUBLIZITATEDUN PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ GARATUKO DEN LIZITAZIOA ARAUTZEKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN ETA KLAUSULA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN ORRIA (ENPLEGURAKO ZENTRO BEREZIENTZAT ERRESERBATUTA).

Ondorio horietarako, SPKLko zazpigarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera, lizitazio honetako partaidetza erreserbatuko zaie *Enplegurako Zentro Berezien* kalifikazioa duten enpresa lizitatuzaileei, betiere, kasuan kasuko autonomia-erkidegoko Enplegurako Zentro Berezien Erregistroan inskribatuta badaude.

Kontuan hartu beharra dago kontratua erreserbatutzat jotzean ez dela konkurrentzia askea alde batera uzten (ez da esleipen zuzena, eta ez dira inolaz ere lurraldeko bertako EZBak eta GLEak bakarrik onartuko), ezta kontratistaren gaitasun, kaudimen edo sailkapenaren eskakizunak ere, orrian bertan adierazten den bezala:

Lizitatuzaileak enplegurako zentro bereziak izango dira, eta honako sailkapen hau dutela egiaztatu beharko dute:

- V) taldea: informazioaren eta komunikazioaren teknologietako zerbitzuak; 1. azpitaldea: informazioa sistema elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez eskuratzeko zerbitzuak; C kategoria.

Erakunde onuradunak

SPKLTBko bosgarren xedapen gehigarrian, EZBak bakarrik aipatzen direnez, argudiatu egin behar dugu zergatik eta nola ezartzen zaizkien kontratu erreserbatuak laneratzeko eta gizarteratzeko enpresei.

PROZEDURA IREKIAREN ETA OHIKO IZAPIDEEN BIDEZ MENORCAKO CIUTADELLAKO ETXEZ ETXKO JANARI-ZERBITZURAKO ESLEITUKO DEN KONTRATU ERRESERBATUA ARAUTZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko (SPKL) zazpigarren xedapen gehigarrian eta 2004ko martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentarauko 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu honen esleipeneko partaidetza erreserbatzen da, enplegu babestuko programen esparruan erakundeei esleitzeko, eraginpeko langileen %70, gutxienez, elbarriak direnean eta, euren elbarritasunen izaeragatik edo larritasunagatik, lanbide-jarduera baldintza arruntetan garatzerik ez dutenean.

Aurrean adierazitakoari inolako kalterik egin gabe, kontratu erreserbatua dela kontuan hartuta, lizitazio honetan honako hauexek bakarrik parte hartu ahal izango dute: enplegurako zentro bereziak, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak, lanerako zentroak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak, betiere, enplegu babestuko programak garatzen badituzte eta euren helburua baztertuta edo bazterketa-arriskupean daudenak laneratzea eta gizarteratzea bada. Erakunde guztiak legearen arabera egon beharko dira eraturta, eta kasuan kasuko erregistroetan egon beharko dira sailkatuta.

Laneratzeko eta gizarteratzeko enpresak kontuan hartzen dituen Ciudadellako Udaleko kontratu erreserbatuaren orria.

- Analogia zentzuzkoa da: berariaz legislatutako enpresa sozialen bi tipologia bakarrak dira (Enplegurako Zentro Bereziei buruzko abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretua eta Laneratzeko eta Gizarteratzeko Enpresei buruzko abenduaren 13ko 44/2007 Legea). Biek eskakizun bereziak, eskatutako ezaugarriak eta erabateko berme juridikodun derrigorrezko erregistroa dituzte. Horrez gain, biek honako hauxe ere partekatzen dute: gizarte-onuraren helburua, elkartasunaren printzipioa, antolaerako ezaugarriak eta lan-merkatuan egoera txarragoan daudenen kontratazioa.
- Europako Batzordeko Enplegu, Gizarte Gai eta Aukera Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak argitaratu emandako “Erosketa sozialak. Kontratazio publikoetan faktore sozialak kontuan hartzeko gida” argitalpenean (amaierako 1258. SEC (2010)), erakunde onuradunen ezaugarri orokorrak eta helburua argudiatzen dira:

“Hona hemen azalpena: «tailer babestuek eta enplegu babestuko programak eraginkortasunez sustatzen dute elbarriak laneratzeko eta gizarteratzeko prozesua. Edonola ere, baliteke tailer horiek kontratuak lehiaketa-baldintza arruntetan lortzeko gai ez izatea». Hori dela eta, oso egokia da estatu kideek lehentasunak ematen dituztela onartzea, beste operadore ekonomiko batzuekin lehiatu gabe tailer horiek egon daitezen”.

- Arauketa autonomikoa baliotasun juridikoaren adierazgarri onena da, kontratu erreserbatuak arautu dituzten 7 autonomia-erkidegok laneratzeko eta gizarteratzeko enpresak erakunde onuraduntzat hartzen dituztelako berariaz: **Euskadi** (Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiari buruzko ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena), **Nafarroa** (ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea), **Katalunia** (abenduaren 30eko 31/2002 Legea), **Andaluzia** (abenduaren 29ko 18/2003 Legea), **Galizia** (abenduaren 28ko 15/2010 Legea), **Aragoi** (otsailaren 24ko 3/2011 Legea) eta **Valentzia** (abenduaren 17ko 279/2004 Dekretua).
- Azkenik, modu ezin argiagoan, Europako Parlamentuak **Kontratazio Publikoari buruzko Zuzentarau Bateratu berria** onartu du 2014ko urtarrilaren 15eko bileran (behin-behineko 2014/25/EE Zuzentaraua). Bertan, kontratu erreserbatuaren arauketa berrian, laneratzeko eta gizarteratzeko enpresen azalpena agertzen denez, zuzenean ezarri beharra dago, nahiz eta oraindik transposizioerik egin ez den:

Beasaingo Udala

PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ETA BERTAKO PARTAIDETZA ENPLEGURAKO ZENTRO BEREZIENTZAT ERRESERBATUTA BEASAINGO UDALERRIKO PARKEEN, LORATEGIEN, BERDEGUNEEN ETA ZUHAIZTIEN ARTAPENERAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA.

Beasaingo Udaleko kontratu erreserbatua.

Durangoko Udala

KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN KARATULA

KONTRATU-MOTA: ZERBITZUAK / PROZEDURA: IREKIA

1. KONTRATUAREN HELBURUA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA: Durangoko parkeak, lorategiak eta ilarako zuhaitziak zaindu eta artatzeko zerbitzua.

Hornikuntzak zehaztaperen teknikoaren orrian adierazitako ezaugarri teknikoak bete beharko ditu.

- 1.1. Kontratuaren helburua eta estali nahi dituen premiak: kontratuaren helburuan adierazita egon arren udaleko obra-brigadak egiten ez dituen zereginak garatzea.
- 1.2. Sortakako banaketa: ez.
- 1.3. CPV kodea: 77311000-3 Lorategiak eta parkeak artatzeko zerbitzuak. 27. kategoria (SPKLko II. eranskina).
- 1.4. Enplegurako zentro berezientzat erreserbatutako kontratua (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legeko zazpigarren xedapen gehigarria).

Durangoko Udaleko kontratu erreserbatua.

Derrigorrezko erreserba

Bosgarren xedapen gehigarrian, kontratu erreserbatua aukera moduan arautzen da, baina ez betebeharraren moduan. Hori dela eta, administrazio publiko bakoitzaren borondatearen arabera ezarriko da: arautegiari erreparatuz gero, ez da derrigorrezkoa kontratazio publikoaren kopuruaren gutxienerako ehuneko zehatza kontratu erreserbatuen bidez esleitzea.

Nolanahi ere, kontratu erreserbatuaren ezarpen partikularra (kasuz kasu) eta borondatezkoa (esleipen-erakundearen irizpidearen arabera) alde batera utzita, nabarmendu beharra dago organo eskudunak derrigorrezko betebeharrat hartu dezakeela bertako kontratuen urteko kopuru zehatza edo aurrekontuaren ehuneko zehatza kontratu erreserbatuen bitartez esleitzea. Horrela, bada, bere ezarpenaren borondatezko izaera gaingaitza da.

Horixe bera gertatu da honako autonomia-erkidego hauetan: Katalunia, Nafarroa, Euskadi, Aragoi edo Gaztela eta Leon. Izan ere, bertako gobernu autonomoek arautu egin dute erreserba hori derrigorrezkoa izan behar dela, eta urteko aurrekontu-zenbaterakoak ezarri dituzte kontratu publikoetan, enplegurako zentro berezientzat eta laneratzeko eta gizarteratzeko enpresentzat derrigorrean erreserbatu daitezkeen. Halaber, honako udal hauetan ere jokatu dute horrela: Avilés, Bartzelona, Castelló, Donostia, Salamanca edo Vitoria-Gasteiz.

Aragoiko Autonomia Erkidegoa

Aragoiko Sektore Publikoko Kontratuen inguruko Neurriei buruzko otsailaren 24ko 3/2011 LEGEA.

7. artikulua - Kontratuen erreserba sozialak.

1. Aragoiko Autonomia Erkidegoko administrazioak eta bertako organismo publikoek zerbitzuetarako, hornikuntzetarako eta zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak esleitzeko kasuan kasuko prozeduretako partaidetza erreserbatu beharko dute enplegurako zentro berezientzat, eraginpeko langileen %70, gutxienez, elbarriak direnean eta, euren elbarritasunen izaeragatik edo larritasunagatik, lanbide-jarduera baldintza arruntetan garatzerik ez dutenean; baita laneratzeko eta gizarteratzeko enpresentzat ere. Era berean, euren betearazpena ere erreserbatu beharko dute enplegu babestuko programen esparruan, artikulua honetan adierazitako terminoen arabera. Enplegu babestuko programen esparruko betearazpena erreserbatu behar denean, erreserba horiek obretako kontratuetan ere egin ahal izango dira.

Laugarren xedapen iragankorra. 2011ko urterako kontratuen erreserba sozialak.

Zazpigarren artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, bertan 2011ko ekitaldirako aipatzen diren kontratu erreserbatuen gutxienerako eta gehienezko ehunekoak %3 eta %8 izango dira, hurrenez hurren.

Aragoiko Autonomia Erkidegoan, erreserba soziala kontratazioaren kopuruaren %3 eta %8 artekoa izango da.

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 FORU LEGEA.

9. artikulua. Erakunde sozialentzako kontratuen erreserba.

1. Foru-legearen eraginpean dauden erakunde publikoek kontratuen esleipenerako prozeduretako partaidetza erreserbatu beharko dute enplegurako irabazi asmorik gabeko zentro berezientzat, laneratzeko eta gizarteratzeko enpresentzat edo enplegu babestuko programen esparruko zenbait enpresaren betearazpenera, eraginpeko langile gehienak elbarriak direnean edo gizartean baztertuta daudenean eta, euren elbarritasunen edota gabezien izaeragatik edo larritasunagatik, lanbide-jarduera baldintza arruntetan garatzerik ez dutenean.
2. Kontratu erreserbatuen zenbatekoa aurreko aurrekontu-ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoaren %6koa izango da gutxienez.

Nafarroako Foru Erkidegoan, aurreko urteko kontratazioaren kopuru osoaren zenbatekoaren %6koa izango da gutxienez.

VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO KONTRATAZIOAN KLAUSULA SOZIALAK KONTUAN HARTZEKO JARRAIBIDEA

KONTRATUEN ERRESERBA

1. Urtero, Vitoria-Gasteizko Udalak zenbait kontraturen esleipenerako prozesuko partaidetza erreserbatuko du enplegurako zentro berezientzat, laneratzeko eta gizarteratzeko enpresentzat edo irabazi asmorik gabeko erakundeentzat.

Urtero, Ogasun eta Ekonomia Saileko Zinegotzigo Ordezkaritzak erreserbaren zenbatekoa zein den zehaztuko du, aurreko urteko kasuan kasuko kudeaketaren txostenak kontuan hartuta.

Urteko helburua ekitaldiko kontratazioaren kopuru osoaren %3koa izango da, hain zuzen ere.

Udalek eurek ere badute euren burua derrigortzeko ahalmenik. Vitoria-Gasteizen, esaterako, kontratazioaren kopuruaren gaineko ehunekoak ezartzen da. Beste batzuetan, ordea, Bartzelonako Udalean, esaterako, zenbateko zehatza ezartzen dute, urteko zortzi milioi eurokoa, alegia.



3.2. Esleipen-fasea

3.2.1. Esleipen-irizpideak

— Zer adierazten da legerian? —

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua

150. artikulua. *Eskaintzak balioesteko irizpideak*

1. Proposamenak balioesteko eta eskaintza ekonomiko abantailatsuena zein den erabakitzeko orduan, kontratuaren helburuarekin zuzenean lotutako irizpideak hartu beharko dira kontuan; esate baterako, kalitatea, prezioa, obraren erabilerarekin edo zerbitzugintzarekin lotutako ordainsariak berrikusteko formula erabilgarria, prestazioa betearazteko edo aurkezteko epea, erabileraren kostua, ingurumenaren arloko ezaugarriak edo kontratuko zehaztapenetan adierazitako eta kontratatu beharreko prestazioetako erabiltzaileei edo onuradunei dagozkien biztanle baztertuen kategorien berezko premiei erantzuten dieten eskakizun sozialen estaldurarekin lotutako ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezkoen eskuragarritasuna eta kostua, artapena, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua edo antzeko beste batzuk.
3. Honako kontratu hauen esleipenean, gainera, irizpide bat baino gehiago balioetsi ahal izango da:
 - h) Kontratuen betearazpenak ingurumenaren gaineko eragin esanguratsua eduki ahal duenean eta esleipenean ingurumen-baldintza neurgarriak balioesten direnean; esate baterako, ingurumenaren gaineko eragin txikiagoa; uraren, energiaren eta materialen aurrezki nahiz erabilera eraginkorra; bizi-zikloaren ingurumen-kostua; ekoizpenerako prozedura eta metodo ekologikoak; hondakinen sorrera eta kudeaketa; edo birziklatutako edo berrerabilitako materialen edo material ekologikoen erabilera.



Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an Kontratazio Publikoari buruz onartutako 2014/24/EB Zuzentaraua

67. artikulua. Kontratua esleitzeko irizpideak

45. kontuan hartuzkoa. Negoziaketek eskaintzak hobetu beharko dituzte, esleipen-botereek euren premia berezietara ondo baino hobeto egokituta dauden obrak, hornikuntzak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera eduki dezaten. Eskuratutako obren, hornikuntzen eta zerbitzuen ezaugarri guztiak negoziatu ahal izango dira, baita honako hauek ere: kalitatea, kopuruak, merkataritzako klausulak eta gizarte, ingurumen zein berrikuntza arloko faktoreak, betiere, gutxieneko betekizunak ez bada.

2. Esleipen-boterearen ikuspegitik zer eskaintza ekonomiko den abantailatsua erabakitzeke orduan, prezioa edo kostua hartuko da oinarritzat. Horretarako, kostua/eraginkortasuna erlazioa hartu ahal izango da kontuan, 68. artikuluan xedatutakoaren arabera; esate baterako, bizi-zikloaren kostuaren kalkulua. Horrez gain, kalitatea/prezioa erlazio onena ere hartu ahal izango da kontuan, eta kasuan kasuko kontratu publikoaren helburuarekin lotutako kalitate, ingurumen edota gizarte arloko faktoreak kontuan hartzen dituzten irizpideen arabera ebaluatuko da. Irizpide horietan, honako hauxe hartu ahal izango da kontuan, esaterako:

- a) kalitatea, balio teknikoa barne; ezaugarri estetiko eta funtzionalak; irisgarritasuna; erabiltzaile guztientzako diseinua; gizarte, ingurumen eta berrikuntza arloko ezaugarriak; eta merkaturaketa nahiz bertako baldintzak.

92. kontuan hartuzkoa. Kalitatea/prezioa erlazio onenaren testuinguruan, zuzentarau honetan agertzen da gizarte eta ingurumen arloko faktoreak kontuan hartzen dituzten ustezko esleipen-faktoreen zerrenda ez-zehatza. Esleipen-botereek behar den moduko esleipen-irizpideak aukeratu beharko dituzte, euren premiei ahalik eta ondoen erantzuten dieten kalitate handiko obrak, hornikuntzak eta zerbitzuak lortu ahal izateko.

93. kontuan hartuzkoa. Xedapen nazionalen arabera, zenbait zerbitzu ordaindu behar direnean edo zenbait hornikuntzatarako prezio finkoak zehazten direnean, argitu egin beharra dago oraindik ere errentagarritasuna ebaluatu ahal izango dela prezioa edo ordainsaria ez beste faktore batzuetan oinarrituta. Kasuan kasuko zerbitzuaren edo produktuaren arabera, faktore horietan honako hauxe hartuko litzateke kontuan: aurkezteko eta ordaintzeko baldintzak, saldu osteko zerbitzuaren nondik norakoak edo gizarte edo ingurumen arloko faktoreak (esate baterako, kontratuaren betearazpenerako esleitutako artean egoera txarragoan dauden bizilagunak edo talde zaurgarrietako kideak gizarteratzeko prozesua sustatzen bada).

99. kontuan hartuzkoa. Behar besteko neurriak ezarriko dira, ekoizpen-prozesuan parte hartzen duten langileen osasuna babesteko, kontratua betearaziko dutenen artean egoera txarragoan daudenei edo talde zaurgarrietako kideei gizarteratzen laguntzeko edo kasuan kasuko kontraturako beharrezkoak diren trebetasunen lorpenerako prestakuntza eskaintzeko. Neurri horiek, gainera, kontratua esleitzeko irizpideen edo baldintzen eraginpean ere egon ahal izango dira, betiere, kasuan kasuko kontratuaren arabera garatu beharreko obrekin, hornikuntzekin edo zerbitzuekin zerikusirik badute.

Esate baterako, irizpide edo baldintza horietan honako hauxe hartu ahal izango da kontuan, besteak beste: iraupen luzeko langabetuei enplegua eskaintzea edo, esleitu beharreko kontratua betearazi bitartean, langabetu edo gazteentzako prestakuntza-neurriak ezartzea.



Gobernu Kontseiluak honako honexeri buruz hartutako erabakiarekin lotutako ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena: gizarte zein ingurumen arloko irizpideen eta beste politika publiko batzuen ezarpena autonomia-erkidegoko administrazio eta bertako sektore publikoko kontratazioan

VII. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

VII.1. SOZIALAK.

1. Esleipen-irizpide bat baino gehiago kontuan hartzen dituzten kontratuetako klausula administratibo partikularren orriko karatulako irizpide horien artean, oso kontuan hartu beharko da eskainitako produktuak eta zerbitzuak behar bezala egokituta egon beharko direla elbarriek erabili ditzaten, betiere, egokitzapen hori ezarri beharreko legerian, zehaztapan teknikoan orrian edo, hala badagokio, onartutako obrako proiektuan derrigorrean eskatutakoa baino handiagoa bada.
2. Kontratuaren helburu diren prestazioetako onuradunak edo erabiltzaileak oso egoera txarrean dauden biztanle-kategoriak direnean, esleipen-irizpidetzat hartuko dira kontratuko zehaztapanetan adierazitako biztanle-kategoria horien berezko premiei erantzuten dieten eskakizun sozialen estaldurarekin lotutako ezaugarriak.
3. Aurkeztutako eskaintzan generoaren ikuspegia txertatzea esleipen-irizpidetzat hartuko da, kasuan kasuko prestazioaren izaeraren eta ezaugarrien arabera txertaketa horren ondorioz eskaintzaren erkapenezko abantailak gehitzen direnean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan kontratuaren helburua ahalik eta ondoen betetzeko, betiere, balioetsi beharreko faktoreak zehaztapan teknikoan orrian prestazioaren derrigorrezko ezaugarri moduan agertzen ez badira. Zentzu horretan, zenbait faktore balioetsi ahal izango dira; esate baterako, azterlan zein estatistiketako emaitzak eta ondorioak sexuen arabera zatikatzea; aurkeztutako eskaintzetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko aurreikusitako ekintzak zatikatzea eta edukia zehaztea; zerbitzuaren edo ondasunaren ezaugarri teknikoan eraketan emakumeen ezaugarri sozialak, psikologikoak edo fisiologikoak kontuan hartzea; eta klausula administratibo partikularren orrian behar bezala zehaztutako antzeko beste irizpide objektibo batzuk ezartzea.

VII.2. INGURUMENAREN ARLOKOAK.

1. Era berean, esleipen-irizpide bat baino gehiago kontuan hartzen dituzten kontratuetako klausula administratibo partikularren orriko karatula horretako esleipen- irizpide horien artean, oso kontuan hartu beharko dira eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren ingurumen-faktoreak, betiere, zehaztapen tekniko partikularren orrian, onartutako proiektuan edo ezarri beharreko arau sektorialetan xedatutako gutxienekoa baino handiagoak badira eta, kontratuaren helburuarekin lotura zuzena edukita, kontratazio-organoaren ustez egokiak badira eta zehatz-mehatz ezartzen baditu.
2. Produktuaren edo zerbitzuaren ingurumen-faktore horiek orrian bertan kasuan-kasuan adierazitako haztapenez balioetsiko dira. Horrez gain, objektiboak, bereziak eta modu objektiboan kuantifikatzeko modukoak ere izango direnez, enpresa lizitatzailerik guztiek balioetsi beharreko faktoreak zein diren jakin ahal izango dute, eta modu berean interpretatuko dituzte. Bestetik, horri esker, kontratazio-organoak eskaintzen erkapenezko balioespina ere egin ahal izango du.



SPKLTBko 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, esleipen-organoak behar beste gaitasuna izango du, enpresa kontratista aukeratzeko baremoan esleipen-irizpide sozialak kontuan hartu ahal izateko. Nolanahi ere, oraindik ere esleipen-irizpide sozialen baliotasuna ukatzen duen nolabaiteko sektore doktrinal eta juridikoa badagoenez, honako argudio hau ekarri behar dugu gogora:

- **Europar Batasuneko Auzitegi Nagusiak** 25 urte daramatza esleipen-irizpide sozialen aldeko epaiak ematen. Honako hauexek ikusi, besteak beste: *“merkataritza bidezkoagoko”* produktuak ondo balioetsi daitezkeela adierazteko asmoz 2011ko abenduaren 15ean emandako Noord-Holland epaia (C368/10 kasua); iraupen luzeko langabetuen kontratazioa baliozko irizpide moduan onartzeko asmoz 1988ko irailaren 20an emandako Gebroeders Beentjes BV epaia (31/87 auzia); zuzentarauak zuzenean ekonomikoak ez diren faktoreei buruzko esleipen-irizpideak erabiltzeko eragozpenik jartzen ez duela adierazteko asmoz emandako Nord-Pas-de-Calais epaia (C-225/98 auzia); 2000ko irailaren 26an autobusak erosteko ingurumen-irizpideei buruz emandako Concordia Bus epaia (C-513/99 auzia); 2003ko abenduaren 4an iturri berriztagarrietatik datorren elektrizitateari buruz emandako EVN Wienstrom epaia (C-448/01 auzia); edo 1995eko martxoaren 28ko Evans Medical eta Macfarlan Smith auzia (C-324/93).
- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an kontratazio publikoari buruz emandako 2014/24/EB zuzentarau berria onartu dute Europako Parlamentuak eta Kontseiluak. Bertan, jurisprudentzian adierazitakoa

argitzen da, eta esleipen-irizpide sozialak legezkoak direla ezartzen da argi eta garbi. Transkribatutako arautegia ikusi.

- Zalantza guztiak argitzeko, gainera, Auzitegi Gorenak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako esleipen-irizpidearen baliotasuna berretsi berri du, nahiz eta irizpide hori kontratuaren helburuan eta izenburuan berriaz azaldu ez. **Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Salako 7. Sekzioak 2012ko uztailaren 17an emandako epaiaz ari gara (5377/2009 errekurtsioa)**. Eraikuntzako Konfederazio Nazionalaren errekurtsioan, «berdintasunaren» esleipen-irizpidea bidegabea zela alegatu zen, langile-taldean emakume langile finko gehien zituen lizitatzailari 5 puntuko gehienezkoa eman ziolako -guztira, 100 puntu ziren-. Extremadurako Auzitegi Nagusiaren esanetan, irizpidea baliozkoa zen, eta CNCK berriro errekurritu zuen Auzitegi Gorenean. Azken horrek, ordea, kasazio-errekurtsioa ezetsi zuen, eta ebazpena zuzenbidearen arabera zela adierazi zuen. Hona hemen argudio juridikoaren zati bat:

“Horren ondorioz, aipatutako aginduak modu literal eta teleologikoan interpretatu behar dira. Hori dela eta, kontratuen arlo administratiboan, ez litzateke zentzuzkoa izango lizitazio, esleipen edo betearazpen faseak bereiztea. Zentzuzko mailan, euren lan-taldean emakumeak kontratatu dituzten kontratistak lehenestea da helburua.

Horren ondorioz, esleipen-irizpidean ez da eskaintza ekonomiko onena lehenetsiko, interes orokorretarako abantailatsuena dena baizik. Beraz, legegilearen esanetan, bertan badago emakumeak lanean dituzten enpresak lehenesterik.

Errekurtsoko tesiaren arabera, kontraesana onartu beharko litzateke... berdintasun-neurriak kontratua betearazteko neurri moduan bakarrik ezarri ahal izango dira... Kontraesan hori onartezina da, eta, ekidin nahi izanez gero, honelaxe interpretatu beharra dago Berdintasunari buruzko Lege Organikoko 32. artikuluko horretan xedatutakoa: betearazpen-baldintza moduan berdintasun-neurriak ezartzea neurri horiek ezartzeko dauden aukeretakoa da, eta ez da bakarra”.

Iruñako Udala

1. irizpidea. "Lizitatzailari 5 puntu emango zaizkio, behar besteko konpromisoa hartzen duenean, enplegurako zentro bereziekin eta laneratzeko eta gizarteratzeko enprekin kontratuaren esleipenerako aurrekontuaren ehunekoa azpikontratatzeko eta orri honetan azaldutako zereginak garatzeko. Hori guztia kasuan kasuko kontratu zibil edo merkataritza-kontratuaren bidez egiaztatu beharko du".

(Baldintzetan bertan betearazpenerako baldintza berezi moduan azpikontratazioarako gutxieneko ehunekoa zehaztu bada, bertan aurreikusitakoa baino handiagoa denean baino ez da balioetsiko kontratua esleitzeko aurrekontuko ehunekoaren gehikuntza).

2. irizpidea. "Lizitatzailari 5 puntu emango zaizkie, behar besteko konpromisoa hartzen dutenean, kontratua betearaziko duen langile-taldean Berdintasun Plana ezartzeko, betiere, esleipendunak bada".

3. irizpidea. "Enpresari 10 puntu emango zaizkio, behar besteko konpromisoa hartzen duenean, kontratuaren betearazpenari begira laneratzeko zailtasunak dituztenen kopuru handiagoa enplegatuzko. Gainerakoek, ordea, puntuazio beherakorra lortuko dute, eta zuzenean izango da proportzionala euren eskaintzarekin".

4. irizpidea. "2 puntu emango dira (eta, gehienez ere, 10), kontratua betearazteko asmoz %33ko elbarritasuna edo hortik gorakoa daukan pertsona lanaldi osorako kontratazteagatik".

Iruñako Udaleko kontratazio publikoko eraginkortasunerako jarraibidean, era guztietako irizpideak hartzen dira kontuan, eta, besteak beste, honako hauexek: GLE-en eta EZBen azpikontratazioa, Berdintasun Plana eta laneratzeko zailtasunak dituztenentzako lanpostuen sorrera.

Basauriko Udala

BASAURIKO HIRIKO ALTZARIEN GARBIKETAREN ETA KOMUNEN GARBIKETAREN NAHIZ DESINFEKZIOAREN BIDEZ LANERATZEKO ETA GIZARTERATZEKO PROGRAMAREN GARAPENERAKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleituko da.

Hona hemen kontratuaren esleipenerako oinarri moduan erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak, garrantzi ordena beherakorraren eta kasuan kasuko haztapenaren arabera sailkatuta:

1. Prezioa: %55
2. Proiektua: %45

Udalerrian egoera txarragoan dauden taldeak laneratzeko eta gizarteratzeko proposamena eskaintzen duen proiektua aurkeztu beharko da.

Laneratzeko eta gizarteratzeko proiektua diseinatu eta betearazteagatiko puntuazioa. Basauriko Udala.

KORDOBAKO GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPLEGURAKO UDAL INSTITUTURA (IMDEEC) ATXIKITAKO ONDASUNA DEN "BAOBAB" ENPRESEN HAZTEGIKO "ENPRESEN PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA ANITZERAKO ZENTROAN" KOKATUTAKO "KAFETEGI-TABERNA" ALOKATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTZEN DUTEN KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA

19.2.6. Lanpostuen sorrera: gehienez ere, 10 puntu

- A. (Sustatzaileek edo bazkide langileek) lanaldi osorako edo zati proportzionalerako euren kontura sortutako edo sortu beharreko lanpostu bakoitzeko, betiere, lanaldi hori %50ekoa edo hortik gorakoa bada, 3 puntu.
- B. Lanaldi osorako edo zati proportzionalerako inoren kontura sortutako edo sortu beharreko lanpostu bakoitzeko, betiere, iraupena urtebetekoa edo hortik gorakoa bada eta lanaldi hori %50ekoa edo hortik gorakoa bada, 2 puntu.
- C. Lanaldi osorako edo zati proportzionalerako inoren kontura sortutako edo sortu beharreko lanpostu bakoitzeko, betiere, iraupena urtebetetik beherakoa bada eta lanaldi hori %50ekoa edo hortik gorakoa bada, puntu bat.

Kordobako Udaleko orri honetan, lanpostu gehien sortzen dituzten enpresak balioesten dira. Klausula hori erabat zentzuzkoa da, gaur egungo langabezia kontuan hartuta.

ERREKTOREAREN ZIRKULARRA, EHUko KONTRATAZIOETAN GIZARTE, ETIKA ETA INGURUMEN ARLOKO IRIZPIDEAK KONTUAN HARTZEKO

a) Esleipen-irizpide sozialak honako hauexen artean hautatu beharko dira:

1. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna:

Gehienez ere, 20 puntu eman ahal izango dira, erakunde lizitatzailerak aurkeztutako eskaintzan generoaren ikuspegia txertatzeagatik. Puntuazio hori, gainera, honako atal hauetako batean edo batzuetan zatikatu ahal izango da:

- Gehienez ere, 10 puntu eman ahal izango dira, kontratuaren betearazpenari begira enpresa lizitatzailerak emakume gehiago kontratatzeako konpromisoa hartzeagatik, betiere, betearazpenerako baldintza moduan zehaztutakoa baino handiagoa bada eta, gutxienez, Estatistikako Institutu Nazionaleko Biztanle Aktiboen azken Inkestan kasuan kasuko sektorerako sexuaren eta jarduera-adarraren arabera adierazitako batez besteko ehunekoa baino 5 puntu handiagoa bada. Gainerakoek, ordea, puntuazio beherakor eta proportzionala lortuko dute, honako formula honen arabera: $P = NM / NMM \times 10$ Emaizta P (erakunde lizitatzailerak erdietsitako puntuazioa) = NM (enpresa lizitatzailerak kontratatuko dituen emakumeen kopurua) / NMM (erakunde lizitatzailerak eskaintza onenean kontratatuko dituzten emakumeen kopurua) x 10.
- Gehienez ere, 5 puntu eman ahal izango dira, erakunde lizitatzailerak Berdintasun Plan berezia diseinatu eta aurkezteagatik. Erakunde lizitatzailerak kontratuaren betearazpenean ezartzeko konpromisoa hartuko du, eta, bertan, enpresako berdintasun-politiken xehetasunak azalduko dira kontratuaren betearazpenari begira: enplegua eskuratzeko aukera, sailkapen profesionala, lanaren kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolamendua edo beste batzuk.
- Gehienez ere, 10 puntu eman ahal izango dira, bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko neurri zehatzak ezartzeagatik. Enpresa lizitatzailerak kontratua betearazten duten langileen artean ezarri beharko ditu, eta honako lege hauetan zehaztutako gutxienekoak hobetu beharko dituzte: Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Enpresa lizitatzailerak proposamen teknikoak aurkeztu beharko du, eta, proposatutako neurri zehatzak ezartzeko egutegia eta ebaluatzeko adierazleak zein diren adierazi beharko du bertan; esate baterako, adingabeen edo mendekoen atentzioa sustatzeko moduko gizarte-baliabide bateratuak eskuratzeko edo zerbitzu-txekeak lortzea; lanaldiaren murrizketa, eszedentziak, lizentziak edo aitatasun edo amatasunagatik baimenak hobetzea; uztarketa-premien arabera zerbitzuak eta ordutegiak malgutzea, egokitzea edo berresleitzea; edo antzeko beste batzuk ezartzea.

EHU. Zirkularren bidez ezarri daitezkeen genero-irizpideen aniztasuna, etika, gizarte eta ingurumen arloko irizpideak kontuan hartzeko.

DONOSTIAKO UDALEKO KONTRATUETAN GIZARTE, INGURUMEN, ETIKA, LAN, HIZKUNTZA ETA BERDINTASUN ARLOKO KLAUSULAK KONTUAN HARTZEKO GIDA

II. Esleipen-irizpideak

II.1. Ingurumen-irizpideak

II.2. Berdintasun-irizpideak

- a) Erantzukizun-postuetan dauden emakumeen kopuru handiagoa.
- b) Familia uztartzeko neurriak.
- c) Kontratuaren betearazpenean ezarriko den Berdintasun Plan berezia.

II.3. Laneratzeko eta gizarteratzeko prozesuaren eta elbarritasunaren irizpideak

- a) Laneratzeko zailtasunak dituzten langabetuen edo elbarrien kopuru handiagoa.

II.4. Enpleguko kalitatea

- a) Ezarri beharreko hitzarmen kolektiboan xedatutakoa hobetzen duten lan eta ordainsari arloko baldintzak.
- b) Kontratua betearazten duten langileentzat proposatutako prestakuntza-ekintzak.
- c) Kontratuaren betearazpenean ezarriko den Berdintasun Plan berezia.

II.5. Bidezko merkataritza

II.6. Hizkuntza-irizpideak

Era berean, era guztietako gaiak ere balioetsi ahal izango dira jarraibidearen bidez, Donostiako Udalean egin duten bezala.

Eusko Jaurlaritz

KONTRATUAREN HELBURUA. EUSKO JAURLARITZAKO KUDEAKETA ZENTRALIZATUKO ERAIKINETAN EDARI HOTZ NAHIZ BEROAK ETA ZIZKA-MIZKAK EROSTEKO MAKINA AUTOMATIKOAK JARTZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA

- B.3. irizpidea: hobekuntzak: gehienez ere, 15 puntu.

Azpirizpideak:

- a) Makinen kontsumo energetiko txikiagoa: gehienez ere, 6 puntu.

A sailkapena: 6 puntu.

B sailkapena: 4 puntu.

C sailkapena: 2 puntu.

D edo E sailkapena: 0 puntu.

- b) Produktu "iraunkorrak" * edo bidezko merkataritzakoak: 2 puntu.

Produktuen kopuruaren arabera: gehienezko puntuazioa, 3 produktutik aurrera.

- c) Nekazaritza ekologikoko produktuak: 2 puntu.

Produktuen kopuruaren arabera: gehienezko puntuazioa, 3 produktutik aurrera.

Eusko Jaurlaritzako orri honetan, zenbait esleipen-irizpide zehazten dira; eta, euren artean: ingurumenekoak, nekazaritza ekologikokoak eta bidezko merkataritzako produktuen ingurukoak.

Zer balioetsiko dugu? Zenbait adibide

LANERATZEKO ETA GIZARTERATZEKO PROZESUA ETA ELBARRITASUNA

- Kontratuaren betearazpenari begira, elbarriak edo baztertu sozialak kontratatzea.
- Kontratuaren betearazpenari begira, enplegurako zentro bereziak eta laneratzeko eta gizarteratzeko enpresak azpikontratatea.

GENERO-POLITIKAK

- Emakumeak kontratatzea edo erantzukizun-postuetan edo kualifikatuetan emakumeak kontratatzea edo baztertutako emakumeak kontratatzea.
- berdintasun Plana edo uztarketarako neurriak ezartzea.
- Generoaren ikuspegia kontuan hartuta diseinatzea, kudeatzea eta ebaluatzea. Generoaren eraginari buruzko txostena aurkezteko konpromisoa hartzea eta, bertan, proiektuko edo zerbitzuko sexuaren arabera zatikatutako datuak eta adierazleak agertzea.

INGURUMENA ETA HURBILEKO ZIRKUITUAK

- Produktu ekologikoen erabilera.
- Nekazaritzako produktuen zirkuitu laburrak, ekoizlearentzako balioa handitzeko, ingurumena babesteko eta garraioaren igorpenak mugatzeko.
- Eraginkortasun energetikoa. Produktuen bizi-zikloa. Energia berriztagarrien erabilera. Baliabideen eta bilgarrien kontsumoaren murrizketa. Birziklapena eta berrerabilpena. Negutegi-efektuko gasen igorpenen murrizketa G (EI); esate baterako, CO₂, HFC, PFC eta SF₆.

BIDEZKO MERKATARITZA

- Bidezko merkataritzako produktuen erabilera. Nazioartean aitortutako bi berme-sistemen bidezko abala: erakundeak abalatzten dituen WFTO egiaztapena (Munduko Bidezko Merkataritzaren Erakundeak emandakoa) edo produktuak ziurtatu eta ohiko enpresentzat eskuragarria den Fairtrade zigilua (Bidezko Merkataritzako Zigiluaren Erakundeak emandakoa).

LAN-BALDINTZAK

- Langile-talde mugagabearen ehuneko handiagoa.
- Legearen arabera ezarri beharreko hitzarmen kolektiboko lan-baldintzak errespetatzeko eta betetzeko konpromisoa.
- Lanaren, soldaten edo laneko segurtasun eta osasunaren arloko borondatezko hobekuntzak.

IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK

- Proposamenaren kalitate soziala. Proiektuaren dimentsio bateratua. Eragileen partaidetzarako eta elkarrizketarako metodologiaren nahiz mekanismoen ezarpena. Erakunde publiko edo pribatuekin ezarritako koordinazioa eta osagarritasuna. Lan-sareetako edo erakundearen elkarretetako partaidetza. Boluntarioen partaidetza.
- Kontratuaren edukiaren egokitzapena lurraldera eta toki, gizarte zein kulturako nortasunera. Proiektuko jakintzaren igorpena.
- Kontratuaren itzulketa soziala.
- Kontratuaren edukiaren egokitzapena talde hartzaileen premietara. Erabiltzaileen partaidetza kontratuaren betearazpenaren diseinuan, hobekuntzan eta ebaluazioan.

3.2.2. Lehetasunezko irizpideak

— Zer adierazten da legerian? —

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua

Laugarren xedapen gehigarria. *Euren langile-taldean elbarriak edo baztertu sozialak dituzten enprekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin egindako kontratazioa.*

2. Klausula administratibo partikularren orrietan, kontratazio-organoek adierazi egin ahal izango dute kontratuen esleipenetan lehetasuna emango dietela zenbait enpresa publikok edo pribatuk aurkeztutako proposamenei, betiere, euren kaudimen teknikoa egiaztatzean euren langile-taldean %2tik gora elbarri badaude eta, esleipenerako oinarri moduan erabilitako irizpideen ikuspegitik, proposamen horiek euren terminoetan abantailatsuenak berdintzen badituzte.

Proposamen abantailatsuen aurkeztean berdinketa lortu duten zenbait enpresa lizitatzailerik %2tik gorako ehunekoan elbarriekin lan-harremana dutela egiaztatzen badute, kontratua esleitzen denean langile-taldean elbarri gehien dituen lizitatzailerik izango du lehetasuna.

3. Era berean, proposamen ekonomiko abantailatsuenen baldintza berberetan, kontratuak esleitzean lehetasuna eman ahal izango zaie Laneratzeko eta Gizarteratzeko Enpresen Araubidea Arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratzeko eta gizarteratzeko enpresek aurkeztutako proposamenei, betiere, sailkapen hori edukitzeko arautegi horretan zehaztutako betekizunak betetzen badituzte.

4. Modu eta baldintza berberetan, gizarte eta asistentzia arloko prestazioetarako kontratuak esleitzean lehetasuna eman ahal izango zaie nortasun juridikoa duten irabazi asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako proposamenei, betiere, kasuan kasuko estatutuen edo sorrera-arauen arabera euren xedeak edo jarduerak kontratuaren helburuarekin lotura zuzena badauka eta kasuan kasuko erregistro ofizialean inskribatuta badaude. Halakoetan, kontratazio-organoak erakunde horiei eskatu ahal izango die kostuen arabera eskaintako prezioaren deskonposizioari buruzko xehetasunak aurkezteko.

5. Klausula administratibo partikularren orrietan, kontratazio-organoek adierazi egin ahal izango dute bidezko merkataritzapeko produktuak xede dituzten kontratuen esleipenetan lehetasuna emango dietela bidezko merkataritzako erakunde moduan aitortutako entitateek aurkeztutako proposamenei, betiere, esleipenerako oinarri moduan erabilitako irizpideen ikuspegitik proposamen horiek euren terminoetan abantailatsuenak berdintzen badituzte.



SPKLTBko laugarren xedapen gehigarrian, lehentasunezko irizpidea arautzen da, eta, egia esan, berdinketa hausteko sistema dela esan beharra dago, ezarri ahal izateko ezinbestekoa izango delako bi enpresak (edo gehiagok) euren eskaintza tekniko eta ekonomikoan balioespen berbera lortu izana.

Halakoetarako, bigarren puntuan aurreikusitakoaren arabera, %2tik gora elbarri dituen enpresaren alde ebatziko du esleipena; eta, berdinketak bere horretan iraunez gero, kontratu mugagabedun langile elbarri gehien dituen enpresaren alde. Hurrengo paragrafoetan, ordea, honako hauexentzako lehentasuna ezartzen da: laneratzeko eta gizarteratzeko enpresak, irabazi asmorik gabeko erakundeak (gizarte edo asistentzia arloko kontratuetan) eta bidezko merkataritzan diharduten erakundeak.

Horrez gain, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, klausula administratibo partikularren orrietan kontratazio-organoek adierazi egin ahal izango dute kontratuen esleipenetan lehentasuna emango dietela zenbait enpresaren proposamenei, betiere, euren kaudimen tekniko edo profesionala egiazta-tzean lan-merkatuan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatzeko moduko neurriak ezartzen badituzte.

Adierazgarria eta laudatzeko bestekoa da kontratu publikoei buruzko arautegian honako hauexek aitortzeko berariazko aipamena egitea: %2tik gora langile elbarri dituzten enpresak, laneratzeko eta gizarteratzeko enpresak, bidezko merkataritzako enpresak, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta genero-berdintasuna sustatzen duten enpresak. Dena dela, aukeratutako sistema ez da eraginkorra.

Izan ere, arlo sozialetan emaitzak lortzeko benetako saialdia barik asmoen adierazpena dela esan genezake: lehentasunezko irizpidea enpresa bik edo gehiagok puntuazio bera lortzen dutenean ezartzen da, eta egitate hori ezohikoa da, enpresa esleipenduna zein izango den erabakitzen duen baremoak hamarrenak eta ehunenak ebaluatzen dituelako. Horrela, bada, berdinketa gertatzea ezohikoa izango denez, bere eragina eta ondorioak ez dira antzemango.

Hori dela eta, ez du merezi ezarpenerako aukerei buruzko azterketa egitea, jar-duera egokiak aipatzea eta klausularen eredia berregitea (legezko testua bezalako izango litzateke-eta).



3.3. Betearazpen-fasea. Betearazpenerako baldintzak

— Zer adierazten da legerian? —

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua

118. artikulua. Kontratua betearazteko baldintza bereziak.

1. Kontratuaren betearazpenari begira kontratazio-organismoek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte, betiere, zuzenbide bateratuarekin bateragarriak badira eta lizitazioari buruzko iragarkian nahiz orrian edo kontratuan azaltzen badira. Batez ere, betearazpenerako baldintza horiek ingurumen edo gizarte arloko faktoreekin eduki ahal izango dute zerikusia, laneratzeko zailtasun bereziak dituztenen enplegua sustatzeko, merkatu horretan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko, langabeziari aurre egiteko, lantokiko bertako prestakuntza bultzatzeko, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituneko 145. artikuluan enplegurako zehaztutako estrategia koordinatuaren inguruan zehaztutako beste helburu batzuk betetzeko edo ekoizpen-katean zehar oinarrizko lan-baldintzak betetzen direla bermatzeko. Horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundeko oinarrizko konbentzioak betetzeko eskatu beharra dago.
2. Orrietan edo kontratuan bertan, 212.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, betearazpenerako baldintza berezi horiek ez betetzeagatiko zehapenak ezarri ahal izango dira. Bestela, kontratuzko oinarrizko betebeharrak direla ere adierazi ahal izango da, 223.f) artikuluan zehaztutako ondorioetarako. Baldintza horiek ez betetzea kontratua amaitzeko arrazoitzat hartzen ez denean, orrietan edo kontratuan bertan arau-hauste larritzat hartu ahal izango da arauen arabera ezarritako terminoetan, 60.2.e) artikuluan zehaztutako ondorioetarako.



Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an Kontratazio Publikoari buruz onartutako 2014/24/EB Zuzentaraua

26. artikulua. Kontratua betearazteko baldintzak

Kontratuaren betearazpenari begira esleipen-botereek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte, betiere, zuzenbide bateratuarekin bateragarriak badira eta lizitazioari buruzko iragarkian nahiz orrian edo kontratuan azaltzen badira. Batez ere, kontratua betearazteko baldintza horiek ingurumen edo gizarte arloko faktoreekin eduki ahal izango dute zerikusia.

33. kontuan hartuzkoa. Kontratua betearazteko baldintzak zuzentarau honekin izango dira bateragarriak, betiere, zuzenean edo zeharka bereizkeriazkoak ez badira eta lizitazioari buruzko iragarkian edo baldintzen orrian azaltzen badira. Batez ere, honako hauxe eduki ahal izango dute xede: lantokiko bertako prestakuntza profesionala sustatzea, laneratzeko zailtasun bereziak dituztenen enplegua bultzatzea, langabeziari aurre egitea edo ingurumena babestea. Besteak beste, honako betebeharrak hauek aipatu ditzakegu adibide moduan (kontratuaren betearazpenean ezarri ahal izango dira): iraupen luzeko langabetuak kontratatzea; langabetu edo gazteentzako prestakuntza-ekintzak antolatzea; Lanaren Nazioarteko Erakundeko (LANE) oinarritzako hitzarmeneko xedapenak funtsean errespetatzea, zuzenbide nazionalean ezarri ez badira; eta legeria nazionalean zehaztutako elbarri-kopurua baino handiagoa kontratatzea.



Gobernu Kontseiluak honako honexeri buruz hartutako erabakiarekin lotutako ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena: gizarte zein ingurumen arloko irizpideen eta beste politika publiko batzuen ezarpena autonomia-erkidegoko administrazioari eta bertako sektore publikoko kontratazioan

IX. BETEARAZPENERAKO BALDINTZA BEREZIAK

IX.2. ENPLEGUA LORTZEKO ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN BIZILAGUNAK LANERATZEKO PROZESUA.

1. Klausula administratibo partikularren orriko «Betearazpenerako ingurumen edo gizarte arloko baldintza bereziak» ataleko «Sozialak» azpiatalean, enpresa esleipendunari behar besteko konpromisoa eskatuko zaio, kontratatutako prestazioaren betearazpenean gutxienez laneratzeko zailtasun bereziak dituzten %20 langabetu kontratatzeko. Laneratzeko ehunekoa zenbatzeko, enpresa kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten betearazpenerako beharrezkoak diren langileen kopuru osoa hartuko da kontuan.

IX.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA.

Klausula administratibo partikularren orriko «Betearazpenerako ingurumen edo gizarte arloko baldintza bereziak» ataleko «Sozialak» azpiatalean, betearazpenerako honako baldintza

berezi hauek agertuko dira, kontratua betearazi bitartean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko:

a) Kontratuaren betearazpenean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du honako arlo hauetan guztietan: tratua, lanpostua eskuratzeko aukera, sailkapen profesionala, igoera, iraupena, prestakuntza, amaiera, ordainsariak, lanaren kalitatea nahiz egonkortasuna eta lanaldiaren iraupena zein antolamendua. Era berean, kontratua betearazi bitartean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak zenbait neurri eutsiko die, betearazpenera atxikitakoen bizitza pertsonalaren, lanaren eta familiaren uztarketa bultzatzeko.

...

IX.4. KALITATEKO ENPLEGUA ETA OINARRIZKO LAN-ESKUBIDEAK.

1. Klausula administratibo partikularren orriko «Betearazpenerako ingurumen edo gizarte arloko baldintza bereziak» ataleko «Sozialak» azpiatalean, enpresa esleipendunaren kontratuzko betebeharra agertuko da, kontratuaren betearazpenera atxikitako langileen %30en kontratua mugagabea izan dadin. Betebehar hori, ordea, ez da eskatuko enpresako kontratazio mugagabearen ehunekoa langile guztien %80tik gorakoa denean.
3. Klausula administratibo partikularren orriko «Betearazpenerako ingurumen edo gizarte arloko baldintza bereziak» ataleko «Sozialak» azpiatalean, enpresa esleipendunaren kontratuzko betebeharra agertuko da, kontratua betearazi bitartean ekoizpen-katean zehar oinarrizko lan-baldintzak errespetatzen direla bermatzeko. Horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundeko oinarrizko konbentzioak betetzeko eskatu beharra dago; eta, euren artean, honako hauek: askatasun sindikala; negoziaketa kolektiboa; nahitaezko edo derrigorrezko lanaren desagertzea; arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, jatorri nazional edo jatorri sozialagatiko enplegu-bereizkeriaren desagertzea; eta umeen lanaren abolizioa.



Eskaintzak ebaluatu ostean, kontratua esleituko denez, enpresa lizitatzailerako bat esleipendun bihurtuko da. Horrela, kontratua betearazteko fasea iritsiko da, eta, une horretan ere, klausula sozialak hartu ahal izango dira kontuan. Horretarako, lizitazioari buruzko iragarkian adierazteko betekizuna baino ez da bete behar, eta, zentzuzkoa denez, ezinbestekoa izango da klausula administratibo eta teknikoaren orrietan alde aurretik zehaztu izana.

Praktikan, betearazpenerako baldintzak betebeharrak izango direnez, lizitatzailerak guztiek euren gain hartu eta onartu egin behar dituzte euren proposamena aurkezten dutenean. Gero, esleipendunak derrigorrean bete behar du kontratuko prestazioa garatzen. Ez litzateke betearazpenerako baldintzak onartzen ez dituen lizitatzaileraren proposamena onetsiko, eta betearazpenerako zehaztu-

tako baldintza sozial horiek betetzen ez dituen kontratistak arau-hauste larria ere egin lezake. Horren ondorioz, gainera, zehatu egin lezakete, edo kontratua bera ere amaitu liteke.

Agerikoa denez, baldintzek ezin izango dute konkurrentzia askearen printzipioa urratu, ezin izango da tokian tokiko edo nazio-mailako betebeharrak ere eskatu eta, batez ere, kontratuaren prestazio edo betearazpenarekin lotuta egon behar dira. Beraz, esleipenduna behartu ahal izango dugu Berdintasun Plana ezartzera edo kontratua betearazten duten langileen %5 lan-merkatuan egoera txarragoan dauden bizilagunak izatera. Hala ere, ezin izango dugu behartu ehuneko hori bere enpresako langile-talde osoan edukitzera edo langile guztiei Berdintasun Plana ezartzera, betearaziko den kontratuarekin zerikusirik ez duten langileak inplikatuta badaude.

Nabarmendu beharra dago betearazpenerako baldintzak eta esleipenerako irizpide sozialak bateragarriak direla erabat: betearazpenerako baldintza zehatza ezarri ahal izango diogu esleipendunari, kontratua betearaziko duten langileen %10, gutxienez, lan-merkatuan egoera txarragoan dauden biztanleak izan daitezten eta esleipen-irizpideetan aipatutako %10etik gorako ehuneko kontratatzen duten enpresak balioetsi daitezten. Koherentziaz jokatzeko, nahikoa izango da balioetsi beharreko irizpidea behar den moduko plusa izatea aipatutako betebeharraren aldean.

Debako Udala

DEBAKO UDAL-ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA - BALDINTZA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBOEN ORRIA PROZEDURA IREKIA

7. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

- i) Kontratazio berrietarako politikan, derrigorrezkoa izango da langileen %20, gutxienez, udaleko gizarte-zerbitzuek eratorritako eta laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasunak izandako bizilagunak izatea (eta inoiz ez pertsona bat baino gutxiago).

13. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK.

2. Giza baliabideak eta esperientzia: 30 puntu (B gutun-azalean sartu beharrekoa)

Honako faktore hauek hartuko dira kontuan:

- Kontratazio berrietarako politikan hobekuntzak egitea, laneratzeko zailtasunak dituzten taldeetako langileei dagokienez (derrigorrezko %20tik haratago).

Debako Udaleko orri honetan ikusten dugunez, betearazpenerako baldintzak (derrigorrezko gutxienekoa ezartzen dute) eta esleipenerako irizpideak (borondatez hobetuz gero, puntu gehiago emango zaizkie lizitatzaileei) bateragarriak dira erabat.

Nabarmendu beharra dago kontratua betearazteko fasean klausula sozialak kontuan hartzen baditugu emaitzen lorpena bermatu ahal izango dugula bete-betean. Esleipenerako irizpideetan, ordea, baliteke halakorik ez gertatzea. Esate baterako, laneratzeko eta gizarteratzeko enpresa batekin azpikontratatzaren duten enpresentzako balioespen-irizpidea ezartzen badugu, baliteke esleipendunak edo lizitatzaille batek ere atal horretan zehaztutako puntuak ez lortzea. Hori dela eta, emaitza deuseza izango da. Aitzitik, azpikontratazio hori betearazpenerako baldintzat hartzen badugu, lizitatzaille guztiek konpromiso hori derrigorrean onartu beharko dute euren proposamenean, eta proposatutako helburua lortuko dugu.

Arabako Foru Aldundia

IMMIGRAZIOAREN I. FORU-PLANAREN JARRAIPENA KONTRATATZEKO ETA ARABAKO ELKARBIZITZA ETA KULTURA ARTEKOTASUNAREN FORU-KONTSEILUA DINAMIZATZEKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN ORRIA

- Datu estatistikoekin berri ematen duten txosten edo memoria partzialak edota azkenak sexuaren arabera zatikatuta egon beharko dira, betiere, halakorik lortzerik egonez gero.
- Agiri guztietan hizkuntza modu sexistan erabiltzen ez dela bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoa betetzeko asmoz. Lege horren babespean eta, oro har, garatu daitekeen lanean, pertsonak ez dira agertuko sexuaren arabera giza duintasun gutxiagoko edo gehiagoko pertsonak izango balira bezala edo objektu sexual huts moduan. Horrez gain, estereotipo sexistak ekidin eta sexuaren, zereginen nahiz genero-nortasunaren arloko dibertsifikazioa suspertuko da.

Arabako Foru Aldundia. Generoaren ikuspegia kontuan hartzen duten betearazpen-baldintzak.

Foru Sektore Publikoko Obretako Kontratueta Klausula Sozialak kontuan hartzeko uztailaren 17ko 4/2013 Foru Araua.

5. artikulua. Lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasunaren nahiz osasunaren arloko klausularen ezarpena.

Klausula administratibo partikularren orrietan, behar den moduko klausula ezarriko da, lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasunaren nahiz osasunaren arloko betebeharrak honako termino hauetan bete daitezten:

1. Enpresa kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasunaren nahiz osasunaren arloan indarrean dauden legezko, arauzko eta ohiko xedapen guztiak bete beharko ditu. Dena dela, batez ere, Gipuzkoako Eraikuntza eta Herrilanteko Hitzarmen Kolektiboko edo, hala badagokio, hori berrikusten duten osteko hitzarmen kolektiboetako lan-baldintzak ezarri beharko ditu. Beraz, bere erantzukizunpekoa baino ez da izango laneko istripuen inguruko guztia ezartzea. Hain zuzen ere, Eraikuntza Obretako Segurtasun eta Osasunerako Gutxieneko Xedapenei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera idatzitako eta onartutako Segurtasun eta Osasun Plana bere kontura eta erabateko trebeziaz betearazi beharko du, orri honetan adierazitakoa kontuan hartuta. Enpresa kontratistak agindutakoa betetzen ez badu, ez da inolako erantzukizunik sortuko erakunde kontratatzailearentzat.
2. Era berean, azpikontratutako enpresei kasuan kasuko datuak eskatu ondoren, enpresa kontratistak justifikatu egin beharko du enpresa horiek ere lanaren eta gizarte segurantzaren arloko indarreko xedapen horiek ezartzen dituztela obren betearazpenean, eta, hain zuzen ere, Gipuzkoako Eraikuntza eta Herrilanteko Hitzarmen Kolektiboko lan-baldintzak eta laneko segurtasunaren zein osasunaren arloko betebeharrak ere bai.

Gipuzkoako Aldundiko Foru Araua, kontratistari eta azpikontratistei honako hauxe bete dezatela eskatzeko: hitzarmen kolektiboa eta lanari, gizarte-segurantzari eta laneko segurtasunari zein osasunari buruzko arauak.

Uribe Kostako Mankomunitatea

ZENBAIT BALIOESPEN-IRIZPIDE KONTUAN HARTZEN DITUEN PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ HONAKO HONEXETARAKO KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIA ARAUTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA: BIZIKLETAK ETA LOTURAPEKO EKIPOA KONPONTZEA ETA ARTATZEA, "BIZIMETA" GARRAIO PUBLIKORAKO ZERBITZUA KUDEATZEA, BIZIKLETAK HORNITZEA, BIZIKLETA-GUNEAK JARTZEA ETA URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEKO KIDEAK DIREN UDALERRIETAN BIZIKLETA BIDEZKO GARRAIO PUBLIKORAKO SISTEMA ABIAN JARTZEKO BEHARREZKO EKIPAMENDUA SORTZEA

2. KLAUSULA.- KONTRATU SOZIALA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK. Enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten bizilagunak laneratzeko prozesua

1. Kontratu soziala betearazteko baldintza berezi moduan, enpresa esleipendunari behar besteko konpromisoa eskatuko zaio, kontratatutako prestazioaren betearazpenean gutxienez laneratzeko zailtasun bereziak dituzten %20 langabetu kontratatzeko. Laneratzeko ehunekoa zenbatzeko, enpresa kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten betearazpenerako beharrezkoak diren langileen kopuru osoa hartuko da kontuan.

Uribe Kostako Mankomunitatea. Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten biztanleak kontratatzeko betebeharra.

Bartzelonako Udala

Clàusula 19. Condicions especials d'execució i obligacions del contractista

19.3. Condicions especials d'execució

2. Per consideracions de tipus social:

b. Subcontractes a empreses d'inserció i/o centres especials de treball:

L'adjudicatari haurà de subcontractar amb empreses d'inserció sociolaboral i/o centres especial de treball almenys el 5% del preu d'Execució Material del contracte.

Bartzelonako Udaleko orri honen bidez, honako hauxe lizitatu zen 2011. urtean: "Bartzelonako hiriko barrutietako bide publiko eta udal-eraikinen artapenaren kontratazioa". Zenbatekoa 32 milioi eurokoa zen, eta, aurretiaz zehaztutako betebeharraren arabera, betearazpenaren prezioaren %5 azpikontratu behar zen laneratzeko eta gizarteratzeko enprekin eta enplegurako zentro bereziekin.

Nolako baldintzak ezarriko ditugu? Zenbait adibide

LANERATZEKO ETA GIZARTERATZEKO PROZESUA ETA ELBARRITASUNA

- Gutxienez kontratua betearaziko duten langileen %20 elbarriak eta baztertu sozialak izan beharko dira.
- Gutxienez betearazpenerako aurrekontuaren %10 azpikontratatu beharko da enplegu-rako zentro bereziekin eta laneratzeko eta gizarteratzeko enpresekin.

GENERO-POLITIKAK

- Honako lege hauetan zehaztutako betebeharrak bete beharko dira: Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako emandako 4/2005 Legea eta Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Kontratua betearazten duten langileen lana eta familia uztartzeko neurriak ezarri beharko dira.
- Agiri, publizitate, irudi edo material guztietan, ez da hizkuntza modu sexistan erabiliko.
- Gutxienez kontratua betearazteko kontratatutako langileen %50 emakumeak izan beharko dira.
- Berdintasun Plana diseinatu eta benetan ezarri dela egiaztatu beharko da.
- Honako arlo hauetan berdintasunaren printzipioa betetzen dela bermatu beharko da: prestakuntzarako politikak, hautaketa, sailkapen profesionala, atentzioa, igoera, ordainsaria, egonkortasuna edo iraupena, ordezkaritza, laneko segurtasuna nahiz osasuna edo lanaldiaren iraupena eta antolamendua.
- Kontratua diseinatu eta betearazteko orduan, generoaren ikuspegia kontuan hartu beharko da bere diagnostikoan, helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan. Azken justifikazioan, generoak kontratazioan izandako eraginari buruzko memoria ere erantsi beharko da.

BIDEZKO MERKATARITZA

- Ekoizpenari begira, hornikuntza-sare osoan zehar LANEko hitzarmenak betetzen direla bermatu beharko da, jokabide-kodeari buruzko ziurtagiriaren bidez (SA 8000/ Fair Wear Foundation edo baliokidea) edo kanpoko auditoreek egindako auditoriari buruzko ziurtagiriaren bitartez.
- Produktuen %50 Munduko Bidezko Merkataritzaren Erakundeak (WFTO) edo Estatuko Bidezko Merkataritzaren Koordinakundeak egiaztatutako edo Bidezko Merkataritzako Fairtrade zigilua eskuratutako bidezko merkataritzako erakundeek inportatu eta banatu egin beharko dituzte, betiere, irizpide horiek betetzen badituzte.

LAN-BALDINTZAK

- Gutxienez kontratua betearaziko duten langileen %60k kontratu mugagabea izan beharko dute.
- Esleipendunak kontratua betearazten duten langileei ezarri beharko dizkie (azpikontrataziorik egonez gero, bertan ere ezarri egiten direla bermatu beharko du) legearen arabera sektore eta lurralde mailan ezarri beharreko hitzarmen kolektiboko lan eta ordainsari arloko baldintza onuragarriak.

INGURUMENA

- Kontratatu beharreko ehunezko produktuek Europako Etiketa Ekologikoan edo Öko-Tex Standard 100en zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.
- Nekazaritza ekologikoko produktuak ekoizpen ekologikoari buruzko EEE 834/2007 Araudiaren arabera ziurtatuta egon beharko dira.
- Paper guztia birziklatua izan beharko da, eta ez du klororik eduki beharko (TCF). Horrez gain, I. motako etiketa ekologikoren bateko ingurumen-irizpideak ere bete beharko ditu (aingeru urdina, zisne nordikoa, Europako etiketa ekologikoa...).



4. Jarraibideak eta erabaki orokorrak

Klausula sozialei dagokienez, behin eta berriro aztertzen da derrigorrezkoak diren ala ez. Erantzuna argia da, derrigorrezkoak ez direlako. Izan ere, kontratazio publikoan zenbait irizpide sozial kontuan hartzeko aukerak aztertzean, egiaztatu egingo dugu arautegiko kasuan kasuko artikuluan «...ahal izango da» agertzen dela beti. Hau da, kontratu publikoari buruzko legeriak irizpide horiek kontuan hartzeko aukera ematen du, baina derrigortu gabe. Beraz, nahibadakoa izango da eta ez derrigorrezkoa orrietan bertan ezartzea. Hori dela eta, administrazio publikoaren edo esleipen-organoaren borondatezkoa izango da klausula horiek txertatzea ala ez.

Borondatezkotasun hori erakunde publiko askok hartzen dute euren gain. Nola-nahi ere, administrazio publiko askok (eta gero eta gehiagok) erabakiak, jarraibideak, ordenantzak edo zirkularrak kaleratu dituzte, euren kontratu publikoetan klausula sozialak derrigorrean ezarri ahal izateko. Guretzat, horixe bera da eredu integrala.

Castellóko Udala

CASTELLÓKO UDALEKO KONTRATAZIO PUBLIKOAN IRIZPIDE SOZIALAK
KONTUAN HARTZEKO JARRAIBIDEA

Jarraibide edo erabaki loteslea edukitzeko aukerari dagokionez, honako bertute eta ezaugarri hauek nabarmenduko ditugu:

- Gehienetan, talde-lanaren emaitza dira, eta zenbait sailtako partaidetza, proposamenak nahiz hobekuntzak egon dira (Ogasuna, Enplegua, Obrak, Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Idazkaritza, Kontu-hartzailtza...).
- Prozesuan bertan, lidergo politiko argia egongo da, prozesua bera eta emaitza berresteko.
- Euren argitasun eta kalitate tekniko juridikoa erabatekoa da, eta, zehaztasun juridikoaren ondorioz, klausula aritmetikoak, adierazleak eta egiaztapenerako sistemak ezartzen dira.
- Euren transferentzia-maila handia da, eta administrazio publiko askok era guztietako bertsioak berregin, hobetu eta egokitu egiten dituzte.
- Prozedurako era guztietako aukerak darabiltzate, irizpide sozialak ezarri ahal izateko: kontratu erreserbatuak, esleipen-irizpideak, kaudimen teknikoak eta betearazpenerako baldintzak.

- Ia-ia guztietan, era guztietako klausula sozialak hartzen dira kontuan: emakumeen eta gizonen berdintasuna, laneratzeko prozesua, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak, enplegurako zentro bereziak, elbarritasuna, bidezko merkataritza...
- Onartutakoan eta ezartzen hasitakoan, kontratazio-organoarentzat eta baldintzen orriak idazten dituztenentzat askoz errazagoa izango da lan egitea.

Euren artean, honako erakunde hauek klausula sozialak derrigorrean ezartzeko onartutako jarraibideak edo erabakiak nabarmendu nahi ditugu: Donostiako Udala, Vitoria-Gasteizko Udala, Avilésko Udala, Castellóko Udala, Bartzelonako Udala, Iruñako Udala, Paternako Udala, Castellóko Diputazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Ceutako Hiri Autonomoa, Mallorcako Consell Insular edo Euskal Herriko Unibertsitatea.

Avilésko Udala

2009-VIII-13 ASTURIASEKO PRINTZERRIKO ALDIZKARI OFIZIALA 188. zk. 1/10

IV. TOKIAN TOKIKO ADMINISTRAZIOA

AVILÉSKO UDALA

Avilésko Udaleko kontratu publikoetan irizpide sozialak kontuan hartzeko JARRAIBIDEA (ISE).

Donostiako Udala

Donostiako Udala - Ayuntamiento de San Sebastián

Kontratazio eta Erosketen Atala / Sección de Contratación y Compras

Donostiako Udaleko kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun arloko irizpideak kontuan hartzeko jarraibideak.

Gida honen eta bere edukiaren inguruko interesa dutenei gomendio bakarra egin behar izanez gero, aurrean aipatutako edozein jarraibide aztertzea izango litza-teke. Horretarako, bere gaiak eta prozedurak ikertuko genituzke, administrazio publiko bakoitzaren ezaugarri eta lehenetsuen arabera kasuan kasuko lurraldeetan ezartzeko eta egokitzeko.